

**LABORAL**  
kutxa



**Caja Laboral Popular Coop. de Crédito**

---

**Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa**  
**2017ko abenduaren 31n**



<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>2. Aplikazio-eremua</b> .....	<b>5</b>
<b>3. Politikak eta helburuak arriskuen gestioan</b> .....	<b>7</b>
3.1. Kreditu-arriskua .....	12
3.2. Merkatu-arriskua .....	15
3.3. Eragiketa-arriskua .....	16
3.4. Negoziazio-zorrotik kanpoko balantzearen interes-tasaren arriskua .....	18
3.5. Likidezia- eta finantzaketa-arriskua .....	19
3.6. Arrisku sistemiko globala .....	20
3.7. Zamarik gabeko aktiboak .....	20
3.8. Arriskua gestionatzeko mekanismoak Entitatearen profilerara eta strategiara egokitzea .....	21
3.9. Enpresa-estrategiari lotutako arrisku-profilaren azalpena .....	21
<b>4. Gobernu korporatiboa</b> .....	<b>22</b>
<b>5. Fondo propioei buruzko informazioa</b> .....	<b>35</b>
<b>6. Kapital-eskakizunak</b> .....	<b>38</b>
<b>7. Kreditu-arriskuei buruzko informazioa</b> .....	<b>40</b>
7.1. Errekerimendu orokorrak .....	40
7.2. Errekerimendu osagarriak .....	49
<b>8. Negoziazio-zorroaren merkatu-arriskuari buruzko informazioa</b> .....	<b>53</b>
8.1. Errekerimendu orokorrak .....	53
<b>9. Likidezia-arriskuari buruzko informazioa</b> .....	<b>54</b>
9.1. Errekerimendu orokorrak .....	54
<b>10. Eragiketa-arriskuari buruzko informazioa</b> .....	<b>56</b>
<b>11. Negoziazio-zorroan agertzen ez diren errenta aldakorreko esposizioak</b> .....	<b>57</b>
<b>12. Negoziazio-zorroan sartuta ez dauden posizioetako interes-tasaren arriskuari buruzko informazioa</b> .....	<b>60</b>
<b>13. Palanka-efektuaren ratioak</b> .....	<b>61</b>
<b>14. Ordainsari-politika</b> .....	<b>64</b>
<b>Taulen aurkibidea</b> .....	<b>70</b>



## 1. Sarrera

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea arduratzen da nazioarteko finantza-arauketa bateratzeaz. Batzorde horrek hartutako erabakien bidez kreditu-erakundeetarako taxututako lehen arautegian, arrisku guztien gainean % 8ko gutxienerako kapitala finkatu zen (Basilea I, 1988). Geroago, 2004an, Basilea II hitzarmenak hobetu egin zuen arriskua zenbatesteko mekanismoen sentiberatasuna, eta beste bi zutabe eman zituen: erakunde bakoitzak bere kapitala eta arriskuak ebaluatzearena (II. zutabea) eta merkatu-diziplinarena (III. zutabea). 2010eko abenduan, arau-esparru berria onartu zuen Batzordeak: Basilea III, alegia. Kalitate handiagoko tresnen bidez, kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta sendoa izatea eta erakundeetan eta herrialdeetan homogeneotasunez aplikatzea du xede. Kapitalari buruzko akordio berriak kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetu zuen. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ere erantsi zituen, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikoan txertatu zituen Basilea III akordio horiek, 2019ko urtarrilaren 1era bitartean faseka sartzeko eredu baten —phase-in— barruan. Horretarako, bi esparru erabili zituen: Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/UE (CRD-IV) Zuzentaraua, kreditu-erakundeak jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamendua (EBrena) (aurrerantzean CRR), kreditu-erakundeek eta inbertsio-enpresek Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean dituzten zuhurtziazko betekizunei buruzkoa eta 2014ko urtarrilaren 1ean aplikatzekoa.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartetik datozen arautegi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, onetsi zen, 2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikatzekoak diren errekerimenduetarako arautze-aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari jarraikiz. Indarreko araudiak (I. oinarriak) ezartzen dituen gutxienerako baliabide propioak kalkulatzeko, Taldearen kreditu-arriskua, truke-arriskua, negoziazio-zorroaren arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua hartzen dira kontuan. Horrez gain, arrisku-kontzentrazioaren mugak bete behar ditu Taldeak.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, kreditu-erakundeen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea garatzen duenak, lege horren arau-garapena osatzen du eta testu bakarrean biltzen ditu berori argitaratu arte kreditu-erakundeen antolamenduari eta diziplinari buruz egin diren eta erregelamendu-mailako arau guztiak.

Halaber, azpimarratzekoa da 2015-2017 epealdian CRR Erregelamendua osatzen duten arau berriak argitaratu direla, fondo propioei, likideziari, I. zutabeko arriskuei eta kapital-eskakizunei dagozkien gaitetan.

Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuak 2/2016 Zirkularra jaulki zuen, Espainiako ordenamendu juridikoan 2013/36/UE Zuzentarauaren transposizioa egiteko helburuz, kreditu-erakundeek dagokienez. Horrez gain, 575/2013 Araudiak



(EBrenak) nazioko agintaritza eskudunari aitortzen dizkion aukeretako bat jasotzen du Zirkularrak, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabilitakoak osatuz.

Zirkular horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/UE Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk ere garatzen ditu. Zuzentaru horrek 98/78/CE, 2002/87/CE, 2006/48/CE eta 2009/138/CE Zuzentaruak aldatzen ditu, finantza-konglomeratu bat osatzen duten finantza-erakundeen gainbegiratze osagarriari dagokionez. Zuzentaru horren transposizioa, funtsean, eginda dago, bai 10/2014 Legeak bai 84/2015 Errege Dekretuak honako arau hauetan egindako aldaketan bidez, hurrenez hurren: 5/2005 Legean, apirilaren 22koan, finantza-konglomeratuen gainbegiratzeari buruzkoan eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzekoan, eta lege hori garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretuan.

Azkenik, 2017ko ekitaldian kaleratu da Espainiako Bankuaren 2017ko urriaren 24ko 3/2017 Zirkularra, 2014ko urtarrilaren 31ko 2/2014 Zirkularra aldatzen duena. Zirkular horren helburu nagusia da 2/2014 Zirkularrean alderdi batzuk egokitzea, batez ere garrantzi txikieneko kreditu-erakundeek dagokienez eta Europako Banku Zentralak erakunde garrantzitsuen inguruan onartutako azken xedapenei dagokienez (batez ere Europako Banku Zentralaren 2017ko apirilaren 4ko 2017/697 EB Orientazioari dagokionez, haren bidez xedatzen baita Batasuneko zuzenbideak garrantzi txikieneko erakundeen inguruan eskaintzen dituen aukerak eta ahalmenak erabiltzeko aukera agintaritza nazionalen aldetik). Era berean, kendu egin dira 2017ra arte ezarri beharrekoak ziren aukera iragankorrei buruzko arauak.

CRR Erregelamenduan ezarritako errekerimenduei jarraikiz, kapitalaren % 8ko ratioa bete beharko dute, une oro, kreditu-erakundeek. Dena den, kontuan izan behar dugu, arau-esparru berrian arautzaileek beren ahalmenak erabil ditzaketela, erakundeek aparteko kapital-maila bat eskatzeko.

Zentzu horretan, Entitateak jakinarazpen bat jaso zuen Espainiako Bankutik, Entitateari aplikagarri zaizkion zuzentziak gutxiengo errekerimenduen inguruko erabakiari buruz. Horren arabera, LABORAL Kutxak % 8,005eko CommonEquityTier 1 (CET 1) ratioa izan behar du, phased-in kapital erregulatorioaren gainean neurtua. Baldintza horrek barne hartzen ditu 1. zutabeak eskatzen duen gutxiengoa eta 2. zutabearen errekerimendua, bai eta kapitalari eusteko koltxoia ere. Aldi berean, 1. zutabearen % 8ko eskakizunetik abiatuz, Kapital Osoaren phased-in gutxiengo errekerimendua % 11,505ekoak dira.

CRR Erregelamenduan zehazten diren merkatua informatzeko betebeharrak betetzea da txosten honen helburua, eta Caja Laboral talde bateratuaren 2017ko abenduaren 31ko Zuzentziako Garrantziko Informazioaren dokumentua osatzen du. Barne Ikuskaritzako Departamenduak egiaztatu zuen eta Kontseilu Errektoreak onartu, 2017ko martxoaren 28an.



## 2. Aplikazio-eremua

a) *Erregelamendu honen eskakizunak bete behar dituen entitatea*

Dokumentu honetako informazioa Caja Laboral Popular Coop. de Crédito erakunde nagusizat duen kreditu-erakundeen talde bateragarriari dagokio, CRR Erregelamenduaren 436. artikulua ezartzen duenari jarraituz. Aurrerantzean, Caja Laboral Taldea edo Taldea aipatuko dugu informazio bateratuari dagokionean, eta Caja Laborala edo Entitatea informazio indibidualari dagokionean.

b) *Bateratze-oinarrian kontabilitateari eta zuhurtasunari dagokienez dauden aldean laburpena, eta barne hartzen dituen erakundeen azalpen txikia*

Ondoren, Talde Bateragarria osatzen duten sozietateen xehetasunak azalduko ditugu, bai eta taldeko partaidetzako sozietateen zerrenda ere.

Sozietatea	Jarduera	Baterakuntza- metodoa	Partaidetzaren % -a
Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	Kreditu-erakundeak	Nagusia	
<b>Jardueragatik bateragarriak diren finantza-erakundeak</b>			
Caja Laboral Gestión SGIC SA	Inbertsio-fondoaren gestorea	Integrazio globala	% 100
Caja Laboral Pensiones GFP SA	Pentsio-fondoaren gestorea	Integrazio globala	% 100
ISGA Inmuebles SA	Aktibo higiezinaren gestorea	Integrazio globala	% 100
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	Partaidetza-edukitzailea	Integrazio globala	% 100
Sociedad de Gestión de Activos Caja Laboral SAU	Aktibo higiezinaren gestorea	Integrazio globala	% 100
Caja Laboral Banca Seguros OBSV SLU	Banka-aseguruetako operadorea	Integrazio globala	% 100
<b>Partaidetzako sozietateak</b>			
Seguros Lagun-Aro Vida SA	Aseguruak	Partaidetza	% 100
Seguros Lagun-Aro SA	Aseguruak	Partaidetza	% 100
ICR Institutional Investment Management SGIC SA	Inbertsio-fondoaren gestorea	Partaidetza	% 21

*1. taula: Talde Bateragarria eta partaidetzako sozietateak.*

Jarraian, CRR Erregelamenduaren eraginetarako kreditu-erakundeen talde bateragarriaren eta talde bateratuaren artean dauden alde nagusiak laburbilduko ditugu, 4/2004 Zirkularrean zehazten denari jarraikiz.

Talde bateragarriari buruzko informazioa osatzeko, aldi berean beren jardueragatik entitate bateragarriak diren mendeko sozietateak baino ez dira bateratu Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularrak zehaztutako integrazio globalaren metodoa erabiliz. Jardueragatik bateragarriak ez diren mendeko sozietateei dagokienez, partaidetzaren metodoa ezarri da, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularraren Berrogeita Bederatzigarren Arauak zehazten duenaren arabera.

Taldearen urteko kontu bateratuak egiterakoan, berriz, mendeko enpresa guztiak integrazio globalaren metodoa ezarri bateratu dira, beraien jardueragatik bateragarritzat hartzeko behar diren baldintzak bete ala ez.

Beraz, araudi batoren edo besteren arabera desberdin bateratzen diren sozietateak honako hauek dira:



	Baterakuntza-metodoa	Baterakuntza-metodoa
<i>Entitatea</i>	<i>CRR erregelamenduaren arabera</i>	<i>4/2004 Zirkularren arabera</i>
Seguros Lagun-Aro Vida SA	Partaidetza	Integrazio globala
Seguros Lagun-Aro SA	Partaidetza	Integrazio globala

2. taula: CRR Erregelamenduaren eta 4/2004 Zirkularren arabera modu desberdinean integratzen diren sozietateak.

Bestalde, CRR Erregelamenduaren 36. artikuluan i) idatz-zatian ezarrita dagoenez, Entitateak finantza-erakundeetan zuzenean, zeharka edo sintetikoki dituen tresnak baliabide propioetatik kendu behar dira, Entitateak inbertsio nabarmena duenean horietan; partaidetzakoaren kapitalean % 10etik gorako partaidetza hartzen da inbertsio esanguratsutzat. Halaber, 48. artikuluan arabera, ez dago zenbateko horiek zertan deduzitu, zenbait atalase gainditzen ez dituzten artean.

Aurreko paragrafoan esandakoari jarraikiz, baliabide propioetan ez da inolako zenbatekorik deduzitu.

- c) *Enpresa nagusiaren eta mendekoen artean fondo propioak berehala transferitzeko edo pasiboa itzultzeko gaur egun dauden edo etorkizunerako aurreikusten diren eragozpen praktiko edo juridiko garrantzitsuak*

Gaur egun ez dago inolako eragozpenik, ez materialik, ez praktikorik, ez juridikorik, Caja Laboralaren eta mendeko erakundeen artean fondo propioak transferitzeko edota pasiboa itzultzeko.

- d) *Baterakuntzan sartuta ez dauden mendeko guztietan galdatzen direnak baino fondo propio erreal txikiagoak izatea dakarren zenbatekoa guztira, eta mendeko sozietate horien izena edo izenak*

Gaur egun, Caja Laboralaren Talde Bateratuan ez dago talde bateragarrian sartu gabeko mendeko erakunderik, ez eta araudi aplikagarriak eskatzen dituen gutxieneko baliabideak ez dituen talde mistoko aseguru-erakunderik ere.

- e) *7. eta 9. artikuluetako xedapenen erabilera*

2017-12-31n, ez da arauaren 7. eta 9. artikuluetan aurreikusitako salbuespena erabili.



### **3. Politikak eta helburuak arriskuen gestioan**

Finantza-erakundeen eguneroko jardunean presente dago arriskua, eta, ondorioz, arriskuen gestioa eta horien kontrol eraginkorra jardueraren funtsezko atala eta lehiakortasunean abantaila eskuratzeko faktore erabakigarria dira, Caja Laboralean. Zuhurtzia-parametroak erabiltzea hartu dugu arriskuak kudeatzeko filosofia orokortzat, eta arrisku horiek egoki neurtzeko eta kontrolatzeko mekanismoak, sistemak eta baliabideak erabiltzea. Ez dugu ahortzi, gainera, barne-ereduetan oinarritutako arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko modu moderno eta dinamikoan sakondu nahi dugula, Entitateari ahalbidetuko baitiote bere arriskuak hobeto ezagutzen eta horien kontrola eta gestioa optimizatzen.

Erabakiak hartzeko prozedurak eta arriskuei aurre egiteko jardueren mugak antolatzea da arriskuen politikaren helburua, hain zuzen ere, emaitzak etengabe sortzeko eta, horrela, Entitatearen kaudimena ziurtatzeko, gainbegiraleak ezarritako arau-esparruaren baitan, betiere.

Entitateak, arriskuen barne-gestioa Basileako araudiari eta araudi hori Europan ezarri duen CRR Erregelamenduari egokitzeko xedearekin, hainbat barne-organo eratu ditu, zuzentarau horiek prozesu eragile eta formaletan ezartzen direla ziurtatzeko.

#### ***Kontseilu Errektorea***

Entitatearen administrazio-organo gorena den aldetik, Kontseilu Errektorea da arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken arduraduna. Hori dela eta, arriskuak zorrotz kontrolatzeko eta arriskuen inguruko informazioaren deskargu sistematikoa bidaltzeko eskatzen dio Zuzendaritza Nagusiari. Era berean, Kontseilu Errektoreak presentzia zuzena dauka batzorde batzuetan.

#### ***Arrisku Batzordea***

2014aren amaieran eratu zelarik, Entitatearen Arriskuarekiko Grinaren Esparrua zehazteaz eta arriskuei jarraipena egiteaz arduratzen da Arrisku Batzordea.

Gaur egun, Kontseilu Errektoreko 5 kidek osatzen dute Arrisku Batzordea, eta 2017an 9 aldiz bildu da. Haren funtzionamendua agiri honen 4. puntuko d. paragrafoan azaldu da.

#### ***Zuzendaritza Nagusia***

Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, arrisku-politikak ezartzeaz arduratzen da Zuzendaritza Nagusia. Horretarako, Zuzendaritzak bereizi egin ditu gestio komertziala eta arriskuen gestioaren erantzukizuna, batetik, eta arriskua neurtu eta kontrolatzekoa, bestetik.

Bestalde, Entitateak aurrean dituen arriskuen egoeraren eta bilakaeraren jakitun egon dadin Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Nagusiak txosten bat bidaltzen dio, 3 hilean behin, mugak eta ezarritako prozedurak zer neurritan betetzen diren azpimarratuz, bereziki.



### ***Aktiboen eta Pasiboen Batzordea (APB)***

Arriskuen Arearen txostenaren bidez arrisku-multzoa kontrolatzeaz arduratzen da, hilean behin.

Arriskuen Arearen eta, zehazki, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren euskarria duelarik, interes-tasaren arriskua (arrisku estrukturala), likidezia-arriskua, merkatu-arriskua eta kreditu-arriskua kontrolatzen duen organoa da APB.

### ***Eragiketa Arriskuaren Batzordea***

Eragiketa-arriskua kontrolatzen duen organoa da. Eragiketa-arriskuaren gestioari loturiko garrantzizko erabakiak hartzean datza horren egitekoa. Batzordean, hiru hilean behin, honako alderdi hauek jorratzen dira:

- Epealdiko eragiketa-gertaerak: guztizkoak, guztizkoak kategoriaren arabera sailkatuta eta banakako kasu nabarmenak.
- Autoebaluazioak: emaitzak, arrisku handieneko eremuak eta ekintza-plan nabarmenak.
- Eragiketa-arriskuagatiko kapitala.
- Eragiketa-arriskuei loturiko beste edozein alderdi.

Batzordea honako hauek osatzen dute: Zuzendaritza Kontseiluko kideek, Barne Ikuskaritzako zuzendariak, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuko zuzendariak eta Eragiketa Arriskuaren Unitateko arduradunak.

### ***Produktuaren Batzordea***

2015eko otsailean eratu zen, eta eginkizun hauek ditu:

- ISIN eta finantza-tresna berrien inguruko informazioa eta horiek baliozkotzea; esleitutako produktu-orrien arriskuak eta Komenentzia Testetan eta Egokitasun Testetan eskatutako puntuazioak baliozkotzea.
- Arriskua aldatu zaien produktuen inguruan informatzea eta erabakiak hartzea.
- Produktu-arriskuaren teknikari arduradunak produktuen arriskuari, arrisku handiko produktuen kontratazioari eta Komenentzia Testari eta Egokitasun Testari buruz egindako txostena berrikustea.
- Komenentzia Testean eta Egokitasun Testean eta produktuen arrisku-orrietan emandako puntuazioak berrikustea, hiruhilekoan behin gutxienez.
- Arriskuen ebaluazio-irizpideak berrikustea, hiruhilekoan behin gutxienez.





- Entitatearen Goi Zuzendaritzak esleitzen dizkionak, Batzordearen funtzionamendutik eratorritakoak edo araudi aplikagarrian ezarritakoak.

Produktuaren Batzordea departamentu, area eta zerbitzu hauetako kideek osatzen dute: Partikularren Bankako Departamentukoek, Banka Pertsonalekoek, Inbertsio Fondoak Gestionatzeko erakundekoek, Baloreen Sekziokoek, Diruzaintzaren eta Kapital Merkatuaren Departamentukoek, Enpresen Negozioa Garatzeko Departamentukoek, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzukoek, Gestio Sozialeko Departamentukoek, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentukoek, Araudia Betearazteko Departamentukoek eta Aholkularitza Juridikokoek. 2017ko ekitaldian zehar, ohiko 2 saio egin ditu.

### ***Arriskuen Area***

Zuzendari nagusiaren mende dago, eta honako departamentu hauek hartzen ditu barne: Arriskuen Gestioak, Arriskuaren Kontrol Globala eta Aholkularitza Juridikoa.

Partikularren eta enpresen kreditu-arriskuaren onarpen, jarraipen eta berreskurapenaren ardura zentralizatzen du zentzu zabalean. Era berean, kreditu-arriskuaren barne-ereduak eraiki eta mantentzeaz eta likideziaren, interes-tasen, merkatuaren eta eragiketen arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz ere arduratzen da. Arriskuak gestionatzeko erantzukizuna area bakarraren esku uzteari esker, sinergiak sortzen dira arrisku-politikaren orientabideen transmisioan eta arintasuna eragiketetan, bai eta arrisku guztiak hobeto ezagutu eta kontrolatzeko aukera ere.

Kreditu-arriskuen onarpenaren, jarraipenaren eta berreskurapenen eraginkortasuna areagotzea du xede, bai eta Entitatearen arriskuen erabateko kontrolean sakontzea ere.

### ***Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua***

Arriskuen Arearen mende dago. Arrisku guztien ikuspegi orokorra ematen du, Entitateak aurrean dituen arrisku guztien neurketa eta kontrola departamentu bakarrean biltzen baita.

Hona hemen haren zereginetako batzuk:

- Arrisku guztiak neurtzea eta kontrolatzea.
- Kreditu-arriskua onartzeko eta jarraipena egiteko barne-ereduak eraikitzea eta mantentzea, Basileako errekerimenduen arabera.
- Arriskuarekiko Grinaren Esparruaren arlo guztiak gestionatzea: beharrak identifikatzea, tartean dauden area guztiak koordinatzea, proposamenak APBri, Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari aurkeztea eta RASari jarraipena egitea.
- Basileako II. zutabearen testuinguruan, arriskuak eta ICAAP eta ILAAP prozesuak gobernatzea eta, Basileako III. zutabearen testuinguruan, Zuhurtziazko Garrantziko Txostena egitea.



- Modu agregatuan I. zutabearen nahiz II. zutabearen kapital-eskakizunen arrisku guztiak kuantifikatzea.
- APBn aktiboki parte hartzea, haren euskarri nagusia baita, arriskuen kontroleko txostenak ematen dizkion heinean.
- Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Sozialari laguntzea, arriskua gestionatu eta kontrolatzearen alorreko eginkizunetan.

Gainera, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak beste ardura zehatzago batzuk ere baditu, sekzio hauetan: Merkatu eta Gobernantza Arriskuak, Negozioko Kredituaren eta Metodologiaren Arriskua eta Arrisku Operatiboa.

### ***Arriskuen Gestioaren Departamentua***

Arriskuen Arearen mende dago, eta, Entitatearen arrisku-politika orokorraren testuinguruan, partikularren eta enpresen kreditu-arriskua gestionatzeaz arduratzen da.

Haren zereginen artean daude:

- Gestio komertzialean arriskuen onarpen-politika ezartzea.
- Kreditu-hartzaileen eta proiektuen kreditu-arriskua aztertzea eta ebaluatzea.
- Horretarako behar diren prozedurak, tresnak eta atribuzio-mailak ezartzea:
  - eragiketen edo bezeroen txostenen edukiak
  - eragiketen instrumentazioa
  - kreditu-hartzaileak sailkatzeko eta jarraipena egiteko irizpideak
- Eragiketak berresteko organoetan parte hartzea.
- Kreditu-arriskuari jarraipena egitea.
- Entitateko bezeroen berandutzearen ondoriozko inbertsio irregularren adiskidantzako berreskuratzeaz arduratzea.
- Auzietako Aholkularitza Juridikora eramatea adiskidantzako bidea erabiliz berreskuratu ezin diren egoerak.

Hainbat sekzio ditu: Enpresa Handien Arriskuen Azterketa, ETE-en Arriskuen Azterketa, Negozioren eta Enpresa Txikien Arriskuen Azterketa, Partikularren Arriskuen Azterketa, eta Arriskuen Gestiorako, Adiskidantzako Berreskurapenerako eta Auzi-aurrerako Laguntza.

### ***Altxortegiaren eta Kapital Merkatuaren Departamentua***

Finantzen Arearen mende dago eta finantza-erakundeen eta errenta finko pribatuko jaulkipenen kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakien ondoriozko posizioak gestionatzeaz arduratzen da.

Bi sekzio ditu: Altxortegia eta Kapital Merkatua.



### ***Barne Ikuskaritzako Departamentua***

Entitateari barne-auditoria egitea da Barne Ikuskaritzako Departamentuaren zeregina. Hierarkiari begira, zuzendari nagusiaren mende dago eta, funtzionaltasunari begira, Ikuskaritza Batzordearen mende.

Barne Ikuskaritzako Departamentuan lau eginkizun bereizten dira, jardueraren arabera: Prozesu eta Arrisku Zentralizatuen Ikuskaritza (Departamentu Zentralen Ikuskaritza), Prozesu eta Arrisku Deszentralizatuen Ikuskaritza (Bulegoen Ikuskaritza), Urrutiko Ikuskaritza eta Barne Metodoak (Urrutiko Ikuskaritza) eta Informatika Prozesuen eta Arriskuen Ikuskaritza (Informatika Ikuskaritza).

Barne Ikuskaritza aseguramendurako eta kontsultarako eginkizun independentetzat eta objektibotzat eratu da, erakundearen eragiketei balioa eta hobekuntza eransteke. Helburuak betetzen laguntzen du, ikuspegi sistematikoa eta diziplinatua emanaz, arriskuen gestio, kontrol eta gobernurako prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzeko.

Entitateak arriskuen gestioari berrikuspen globala egitea bermatzen du eta arriskuaren gestio egokirako beharrezkoa den espezializazioa lortzen du, Barne Ikuskaritzaren antolamenduari esker.

Funtsean, hauek dira arriskuak berrikusteko esleitutako eginkizunak:

- Kontrolaren ingurunea ebaluatzea.
- Negozioaren arriskuen gestio-prozesuak hobetzea.
- Entitatearen eragiketak hobetzea.
- Gardentasuna eta Gobernamendu Ona bermatzea.
- Kontabilitateko eta kontroleko informazioaren fidagarritasuna bermatzea.

### ***Araudia Betearazteko Departamentua***

Araudia Betearazteko Departamentua Finantzen Areak dago eta, aldian behingo alerta-prozesuetan eta beste berrogeita hamar bat prozesu berezitan oinarrituta, eragiketa susmagarriak antzemateaz arduratzen da. Hona hemen haren jarduera-eremuak:

- Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzea.
- Merkatu-abusua antzematea.
- Balore Merkatuko Jokabideen Barne Araudia.



- MiFID araudia.
- Datu pertsonalen babesa.
- Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodea.

### **3.1. Kreditu-arriskua**

#### *a) Gestio-estrategiak eta -prozesuak*

##### *Kreditu-arriskua*

Kreditu-hartzaileek Entitateari ordaintzeko betebeharra betetzen ez dutelako sor daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Bereizitako gestio-esparruei dagozkenez, 2 mota bereizten dira kreditu-arriskuan: altxortegiaren eta kapital-merkatuaren jardueraren ondorioz sortzen dena eta partikularrekin, autonomoekin eta enpresekin egin ohi den inbertsio-jardueraren ondorioz sortzen dena.

Entitateak arriskua gestionatzeko hainbat politika eta prozedura ezarri ditu, arrisku horren gestioa hobetu eta sukurtsal-sarean berrespena bizkortzeko eta, aldi berean, kaudimenari buruzko araudiak ezarritako arau-errekerimenduak betetzeko.

Arriskua onartzeko prozedura antzekoa da segmentu guztietan. Dena den, enpresa-segmentuetan ratinga erabiltzen da bezeroaren kreditu-maila neurtzeko; partikularretan, berriz, scoringa erabiltzen da onarpen erreaktiboan eragiketa/bezeroa binomioa sailkatzeko, eta ratinga, arriskua modu proaktiboan emateko —aurrez emandakoak—.

##### *Kontrako alderdiaren arriskua*

Kontrako alderdiak eragiketa baten kutxa-fluxua behin betiko kitatu baino lehen eragiketa hori ordaintzeari uzteko arriskua da kontrako alderdiaren arriskua. Agiri honen barruan, Altxortegiaren Departamentuaren eragiketen kreditu-arriskua dela ulertzen da, eta, ondorioz, errenta finkoa jaulkitzerakoan sortzen den arriskua eta bankuen arteko eragiketen kreditu-arriskua ere bere barruan hartzen ditu.

Kontrako alderdiaren arriskua gestionatzeko, Entitatearen strategiari jarraikiz, finantza-erakundeentzako eta korporazio handientzako gehieneko muga batzuk ezartzen dira, altxortegiaren eta kapital-merkatuen esparruan. Kontrako alderdiaren/taldearen araberrako mugez gain, arrisku-kontzentrazioaren gaineko hainbat muga finkatu dira, erreferentziaren, gestorearen eta arriskuaren mendekotasun-graduaren arabera.

Altxortegiaren Departamentuak zerrenda bat proposatzen du, urtean behin, linea zer kontrako alderdirekin izan nahi duen azaltzeko, eta linea horien mugak haien kreditu-kalifikazioaren arabera ezartzen dira.



b) *Arriskua gestionatzeko zereginaren egitura eta antolaketa*

### *Kreditu-arriskua*

Kreditu-arriskua gestionatzeko organo nagusia Arriskuen Batzordea da. Caja Laboralaren Kontseilu Errektoreko kideek osatzen dute.

Kreditu-arriskuaren kudeaketaren alorrean, Caja Laboralaren antolaketa honako area eta departamentuetan egituratzen da:

#### *Partikularren Sarea eta Enpresetan Espezializatutako Sarea*

Partikularren bulegoak eta enpresen bulegoak Area Komertzialaren mende daude, hurrenez hurren; kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea osatzen dute, beren eskumenen barruan.

#### *Arrisku-analisten taldeak*

Tipologia bakoitzeko bezeroen (partikularren, negozio eta enpresa txikien, ETE-en eta enpresa handien) analisten taldeek osatzen dute kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren bigarren fasea.

#### *Zerbitzu Zentraletako Batzorde Delegatua*

Arriskuen Areako arduradunek eta analistek osatzen dute. Eskudantzia apalagoko mailetan berretsi ezin izan diren eragiketak berresten ditu.

#### *Batzorde Nagusia*

Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideek osatzen dute. Eskudantzia-maila gorena da.

#### *Arriskuen Gestioaren Departamentua*

Arriskuen Arearen mende dago, eta kreditu-arriskua gestionatzen du, zenbateko batetik gorako arriskuak berresteko zereginetan esku hartuz. Horretarako, Batzorde Delegatuan hartzen du parte eta Batzorde Nagusiarentzako izapideak egiten ditu, horien euskarri nagusia baita.

#### *Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua*

Arriskuen Arearen mende dago, eta gestio-segmentuetako kreditu-arriskuak gestionatzeko barne-ereduak eraikitzeaz eta mantentzeaz arduratzen da, bai eta Entitateak aurrean dituen arriskuen jarraipena egitea ahalbidetzen duten txostenak egiteaz ere.



### Kontrako alderdiaren arriskua

Caja Laboralean, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua da banku arteko arriskuarentzako mugak proposatzearen arduraduna, Altxortegiaren Departamentuak eskatuta. Mugok Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak onesten ditu.

#### *c) Arriskuak neurtzeko eta jakinarazteko sistemen irismena eta izaera*

Kreditu-arriskuaren gestioaren barruan, fase hauek bereizten dira Entitatean:

#### Onarpena

Caja Laboralaren kreditu-arriskua gestionatzeko prozesuaren funtsezko atala da erabakia osatuko duten eredu estatistikoak eta erabaki-arauak erabiltzea.

Entitateak arriskuak emateko hainbat eredu ditu sarean ezarrita, hala partikularren segmentuan nola enpresen segmentuan. Eredu horiek Entitatearen barruan garatu dira, eta, irteerak osatzeko, hainbat abisu eta alerta erabiltzen dira. Horiei guztiei esker, eredu guztiakin lortutako emaitzak kreditu-arriskuak gestionatzeko politiketara eta Caja Laboralaren kreditu-zorroaren errealitatera doitzea lortzen dugu.

#### Jarraipena egitea

Caja Laboralarentzat, kreditu-hitzarmenak bete daitezela jagotea da onartutako arriskuen jarraipenaren helburua. Horrela, kredituak dirauen artean arriskua areagotzen duen edozein egoera hauteman dezake. Ildo horretan, egoera aldakor batean parte hartzen duten elementu dinamikotzat hartzen dira bezeroak.

Arriskuari jarraipena egiteko, berandutze aurreko alerta-ereduak ditu Entitateak, etorkizuneko ez-ordaintzeak (30 egunetik gorako berandutzeak) iragartzen dituztenak. Horrela, egoera problematikoen gestio proaktiboa egin dezake, ez-ordaintzeak gertatu aurretik.

#### Berreskurapena

Arriskuen gestioaren barruan, Caja Laboralarentzat funtsezkoa da berreskurapen-jarduera. Berreskurapenak egiteko, Adiskidantzako Berreskurapenaren eta Auzi-aurrearen atala (Arriskuen Gestioaren Departamentuaren barrukoa) du, bai eta Auzietako Aholkularitza Juridikoaren atala ere (Aholkularitza Juridikoaren barruan).

Zentzu horretan, Caja Laboralak ez-ordaintzeei aurrea hartzeko tresneria dauka antolatuta, hala nola arrisku-politika egokia, arriskuen estaldura egokia eta jarraipenerako metodologia. Baina, gainera, egoera irregularrak gestionatzeko sistema bat ere badu zehaztuta, eta adiskidantzaren bidea edota, behar denean, auzibidea erabiltzen du.



d) *Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna etengabe gainbegiratzeko estrategiak eta prozesuak*

Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikari dagokienez, inbertsio-jarduerarik handiena etxebizitzaren finantzaketara bideratuta dago, eta hipoteka-bermeak ditu. Gainera, kreditu-kalitate txarragokotzat jotako eragiketen kasuan, beste estaldura batzuk ere baditu: bermeak, diru-gordailuak eta finantza-aktiboak.

Entitateak, oro har, ondasun higiezin moduan baloratzen ditu berme errealak, tasazio-balioan. Tasazioa Espainiako Bankuak horretarako ezarrita dituen arauak betetzen dituzten entitateek egiten dute.

Altxortegiaren eta kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko eta errenta finko pribatuarekiko arriskuari dagokionez, kontrako alderdiaren/taldearen, erreferentziaren, gestorearen eta mendeko arriskuaren arabera mugak finkatzen dira urtero. Horretarako, mugak esleitzeko prozedura ezarri da, ratingetan ez ezik, hainbat iragazki eta alertatan ere oinarrituta.

Muga horiek betetzen diren ala ez egiaztatzeko, jarraipena eta kontrola denbora errealean egiten da.

### **3.2. Merkatu-arriskua**

Arrisku-faktoreek (interes-tasak, kanbio-tasak, akzioen prezioak eta komoditien prezioak) izan ditzaketen mugimendu kaltegarrien ondorioz posizioen merkatu-balioan galerak izateko arriskua da.

a) *Gestio-estrategiak eta -prozesuak*

Merkatu-arriskuak neurtzeko, alde batetik, Zorro Estrategikorako arriskuaren zenbatekoa erabiltzen da eta, bestetik, Trading Zorrarako Value at Risk (VaR) kalkulu-metodoa.

Hori horrela, merkatu-arriskuen mugen sistema honako hauen arabera finkatu da: Zorro Estrategikorako, gehienezko zenbatekoaren arabera eta Trading Zorrarako, VaRaren arabera, stop lossarekin osatuta.

b) *Arriskua gestionatzeko zereginaren egitura eta antolaketa*

Merkatu-arriskuen gestioan, Altxortegiaren Departamentuak eta Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak hartzen dute parte. Lehenak ezarrita duen jarduera-esparruaren barruan bereganatzen ditu arrisku- eta gestio-posizioak, eta bigarrena prezioen kontrolaz, aktiboak baloratzeaz eta Altxortegiaren emaitzez eta arriskuez arduratzen da.

c) *Arriskuak neurtzeko eta jakinarazteko sistemen irismena eta izaera*

Merkatu-arriskua gestionatzeko, altxortegi-areto mota guztietako zorroak (propioak edo inorenak) gestionatzeko aukera ematen duen aplikazioa erabiltzen du Entitateak.

Tresna hori hainbat funtzio dituzten moduluetan dago banatuta:



- Posizioak denbora errealean kontrolatzea, posizio baliokideak gestionatzea eta simulazioak egitea.
- Edozein motatako jarduerak gestionatzea, emaitzei dagokienez zein arriskuei dagokienez.
- Jarduera, finantzaketa-kostua, balorazio-merkatuko datuak eta emaitzak kontrolatzea eta aztertzea.
- Eragiketak kontrolatzea (eragiketak balidatzea).
- Merkatu-arriskua gestionatzea, VaR analitikoa, Monte Carlo bidezko VaRa, VaR historikoa eta VaR Extreme Valuea kalkulatzearen bidez.
- Hegakortasunen eta korrelazioen inguruko matrize propioak sortzea.

*d) Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna etengabe gainbegiratzeko estrategiak eta prozesuak*

Caja Laboralaren barruan, merkatu-arriskuaren gestioaren eraginkortasuna gainbegiratzeko, jarraipen-txostenak egiten dira hilean behin, gestioa zorrotzagoa izan dadin.

### **3.3. Eragiketa-arriskua**

*a) Gestio-estrategiak eta -prozesuak*

Langileak, prozesuak eta barne-sistemak desegokiak direlako nahiz huts egin dutelako, edo kanpoko beste edozein gertakizun dela medio galerak izateko arriskua da. Gaur egun, Eragiketa Arriskuko kapital erregulatorioaren berri emateko, Metodo Estandarra erabiltzen du Entitateak, CRR Erregelamenduan agertzen diren jarraibideen arabera.

Entitatean, hauek dira eragiketa-arriskuaren gestioaren oinarrizko printzipioak: langileen eta Zuzendaritzaren zuzentasun- eta etika-maila handiak, Entitate osoan kontrolaren ingurunea eta kultura eraginkorrak izatea, negozio-jardunbide zuzenekiko atxikimendua eta arrisku-esposizioarekiko tolerantzia txikia.

Eragiketa-arriskuaren gestioak erakunde osoari eragiten dio, maila guztietan. Horren ondorioz, Caja Laboralak, eta haren mendeko sozietate guztiek, esposizio guztietan aplikatzen dituzte arriskuak identifikatu, ebaluatu, jarraitu, neurtu eta arintzeko prozesuak.

Eragiketa-arriskuarentzako politika espezifikoak “Eragiketa-arriskua gestionatzeko zereginen eta politiken eskuliburua” agirian zehazten dira.





*b) Arriskua gestionatzeko zereginaren egitura eta antolaketa*

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren barruan dagoen Eragiketa Arriskuaren Unitatea arduratzen da eragiketa-arriskuaren gestio-zikloa ezartzeaz eta indarrean jartzeaz.

Eragiketa Arriskuaren Unitateak dituen zereginak bereizita daude Barne Ikuskaritzaren zereginetatik eta negozio-unitateetatik, eragiketa-arriskuaren gestioa Entitatearen gestio orokorrean eta arriskuen kontrolean txertatzeko.

Gainera, honako hauek ere badaude:

- Koordinatzaileen Sarea. Eragiketa-arriskuaren gestioa negozioaren edo euskarriaren arean egunerokoan egoki ezartzen dela bermatzea da horren zeregina.
- Balidatzailea. Departamentuko edo zuzendaritzako arduradunaren profilari egokitzen zaio. Haren zereginen artean, hauek nabarmen daitezke: bere ardurapeko departamentuaren edo zuzendaritzaren barruan eragiketa-arriskua gestionatzeko sistemak egoki funtzionatzen duela bermatzea, eta arean gertatu diren eta eraginik handiena izan duten eragiketa-gertakizunen jarraipena ikuskatzea.

*c) Arriskuak neurtzeko eta jakinarazteko sistemen irismena eta izaera*

Eragiketa Arriskuaren kudeaketan erabiltzen den tresna informatiko nagusia GIR aplikazioa da. Datu kualitatiboak nahiz kuantitatiboak jaso eta biltzen ditu, hauek zehazki:

- Arriskuen autoebaluazioak eta ekintza-planak.
- Eragiketa-galerei buruzko datu-basea.

Hauek dira eragiketa-arriskuaren eredia hornitzen duten iturriak:

- Datu-base kualitatiboa, arrisku-mapak eta kontrolak gestionatzeko eta mantentzeko, eta autoebaluazioak eta ekintza-planak egiteko.
- Datu-base kuantitatiboa, eragiketa-arriskuen ondorioz gertatu diren barne-galerak erregistratzeko.

*d) Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna etengabe gainbegiratzeko estrategiak eta prozesuak*

Entitatean, eragiketa-arriskua arintzeko eta prebenitzeko politikaren oinarriak hauek dira: eragiketa-arriskua gestionatzeko tresnetan erregistratutako gertakizunen historikoa aztertzea eta, azterketa horretan oinarrituz, ekintza-planak garatzea.



Horretarako, lehen esan dugunez, galera-gertakizunak prebenitzea eta jarraipenerako ekintzak aktiboki gestionatzea ahalbidetzen duten hainbat tresna dauzka.

### **3.4. Negoziazio-zorrotik kanpoko balantzearen interes-tasaren arriskua**

#### *a) Gestio-estrategiak eta -prozesuak*

Entitatearen emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galerekin du zerikusia interes-tasaren arriskuak.

Caja Laboralak sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arrisku-maila, eta, horretarako, gestio-eredu aktibo bat ezartzen du, Entitatearen emaitza-kontuan edo balio ekonomikoan eragin negatiboa izan dezaketen edota horiek nabarmen baldintza ditzaketen ustekabeko bilakaerei aurrea hartzeko.

Interesen arrisku-maila kalkulatzeko, interes-tasen bilakaerak Entitatearen Interesen Marjina nahiz Balio Ekonomikoan zer eragin daukan balioztatzen da.

Caja Laboraleko Kontseilu Errektoreak muga bat ezarri du interes-tasaren arriskuarentzat, eta horixe erabiltzen du APBk gestio-esparrua zehazteko.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren ardura da interes-tasaren arriskuari buruzko txostenak egitea, gero APBri aurkezteko. Horretaz gain, hiru hilean behin, hileroko txostenen eta APBk hartutako erabakien laburpena egiten da, Zuzendaritza Nagusiak Kontseilu Errektoreari horren guztiaren berri eman diezaion.

#### *b) Arriskua gestionatzeko zereginaren egitura eta antolaketa*

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua interes-tasaren arriskua kontrolatu eta jarraipena egiteaz arduratzen da, eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordea jakinaren gainean izaten du, horixe baita arriskuok kontrolatzearen eta gestionatzearen azken arduraduna.

#### *c) Arriskuak neurtzeko eta jakinarazteko sistemen irismena eta izaera*

Interes-tasaren arriskua gestionatzeko aplikazio bat dauka Entitateak, FOCUS izenekoa, eta gainbegiraleari emaitzak eta gestiorako informazioa eskaintzen dizkio:

- Balio-handitzearen gaparen kalkulua.
- Interes-tasen egoera desberdinen eta negozioaren bilakaeraren arabera aurreikus daitezkeen Marjina Gordina eta balio ekonomikoa.
- RI1, RI2 eta RI3 egoera-orriak, gainbegiralearentzat.



*d) Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna etengabe gainbegiratzeko estrategiak eta prozesuak*

Interes-tasaren arriskurako gehieneko muga bat dauka ezarrita Caja Laboralak, eta ezin du inoiz gainditu. Ezarritako prozeduraren arabera, muga horretara iritsiz gero, egoera birbideratzeko neurri egokiak hartu beharko ditu. Gehieneko arrisku-muga hori gainditzeko, Kontseilu Errektorearen esanbidezko onspena beharko da.

Nolanahi ere, APBk proaktibotasunez gestionatzen du interes-tasaren arriskua, eta estaldurari buruzko erabakiak merkatuak eskaintzen dituen aukeren arabera eta Entitatearen emaitza-kontuaren aurreikuspenen arabera egiten du, ezarritako arrisku-maila errespetatuz betiere.

Aldian-aldian estalduren eraginkortasuna neurtzeko ebaluazioak egiten dira.

### **3.5. Likidezia- eta finantzaketa-arriskua**

*a) Gestio-estrategiak eta -prozesuak*

Caja Laboralean arriskua gestionatzeko erabiltzen diren politika eta prozedurak “Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburuan” daude jasota. Horien arabera, likideziari jarraipen eta kontrol sistematikoa egin behar zaio: likideziaren egoerari buruzko txostena egunero sortu, hilean behin altxortegi-plana sortu eta likidezia-helburuen bilakaera eta desbiderapenak (hori sortzen duten partidak ere bai) hilean behin aztertu.

*b) Arriskua gestionatzeko zereginaren egitura eta antolaketa*

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuan egiten dira likidezia- eta finantzaketa-arriskua kontrolatu eta jarraitzeko lanak, eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordea jakinaren gainean izaten du, horixe baita arriskuok kontrolatzearen eta gestionatzearen azken arduraduna.

*c) Arriskuak neurtzeko eta jakinarazteko sistemen irismena eta izaera*

Likidezia-arriskua gestionatzeko, FOCUS izeneko aplikazioa dauka Entitateak, eta likidezia sistematikoki kontrolatzea eta gainbegiralearentzako informazioa ematea ahalbidetzen du.

- likideziako egoera-orriak
- LCR, NSFR egoera-orriak
- likideziako aparteko metrikak

*d) Arriskuak estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna etengabe gainbegiratzeko estrategiak eta prozesuak*



2010eko martxoan, “Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburu” onetsi zuen Kontseilu Errektoreak. Helburuak, mugak eta kontrolerako eta jarraipenerako aldagaiak ez ezik, likidezia Kontingentzia Plana ere jasotzen du. Eta, eskuliburu horri jarraikiz, Kontseilu Errektoreak urtero berrikusten ditu muga eta helburu horiek.

Likidezia gestioari buruzko atal kualitatibo horri arlo kuantitatiboa erantsi behar zaio. Horren arabera, egoera eroso dugula esan daiteke. Ondorioz, Entitateak ez du beharrezkoa ikusten likidezia-arriskua estaltzeko aparteko kapital-zuzkidurarik egitea.

### 3.6. Arrisku sistemiko globala

36/2013/UE Zuzentarauaren 131 artikuluari jarraikiz, Caja Laborala ez da garrantzi sistemiko globala duten erakundeen artean sailkatu.

### 3.7. Zamarik gabeko aktiboak

Europako Banku Agintaritzak ezarritako arautegiaren arabera, likidezia lortzeko eragiketetan berme gisa ekarritakoak edo jasotakoak dira aktibo konprometituak, baita finantzaketa ez den arrazoiren bategatik pasiboei lotutakoak ere.

2017an zehar, aktibo konprometituen batezbestekoa 3.352 milioi eurokoa izan da.

AKTIBOAK	ZAMADUN AKTIBOAK		ZAMARIK GABEKO AKTIBOAK	
	Kontabilitate-balioa (mila €-kotan)	Arrazoizko balioa (mila €-kotan)	Kontabilitate-balioa	Arrazoizko balioa (mila €-kotan)
<b>Erakunde aitortzailearen aktiboak</b>	3.352.247		18.278.969	
Ondare-tresnak	0	0	192.147	191.966
Zorra adierazten duten baloreak	1.116.142	1.129.966	3.877.524	3.899.808
Maileguak eta aurrerakinak	2.236.105		12.883.885	
Beste aktibo batzuk	0		1.325.413	

3. taula: Aktibo konprometituak edo zamarik gabekoak.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, jasotako berme konprometituen urteko batezbestekoa 0 milioi eurokoa da.

JASOTAKO BERMEAK	JASOTAKO BERME KONPROMETITUAK EDO JAULKITAKO AUTOZORROA	JASOTAKO BERMEAK EDO KONPROMETITZEKO MODUAN DAGOEN JAULKITAKO AUTOZORROA
	Arrazoizko balioa (mila €-kotan)	Arrazoizko balioa (mila €-kotan)
<b>Erakunde aitortzaileak jasotako bermeak</b>	0	0
Ondare-tresnak	0	0
Zorra adierazten duten baloreak	0	0
Jasotako beste berme batzuk	0	0
<b>Jaulkitako zorra adierazten duten balore propioak, bermatutako bonuak edo aktibo propioen titulizazio-bonuak ez bezalakoak</b>	0	0

4. taula: Jasotako berme errealak.



Horrela, jaulkitako finantza-pasibo lotuen batezbestekoa 2.929 milioi eurokoa da, grabatutako aktiboen batez besteko zenbatekoa 1.973 milioi eurokoa izanik.

JASOTAKO AKTIBOAK ETA BERMEAK, LOTUTAKO ZAMA ETA PASIBODUNAK	LOTUTAKO PASIBOAK, KONTINGENTEAK EDO MAILEGATUTAKO BALOREAK	AKTIBOAK, JASOTAKO BERMEAK ETA KONPROMETITUTAKO AUTOTZORROA, TITULIZAZIO-BOONAK KANPO UTZITA
Kontabilitate-balioa (mila €-kotan)	2.928.610	1.973.144

5. taula: Aktibo konprometitua/jasotako bermeak eta lotutako pasiboak.

### 3.8. Arriskua gestionatzeko mekanismoak Entitatearen profileraz eta estrategiaraz egokitzea

Kontseilu Errektorea, Entitateak hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen arduradun gorenaz, da barruko kapitalaren egokitasuna ebaluatzeko prozesuaren (ICAAPen) eta barruko likideziaren egokitasuna ebaluatzeko prozesuaren (ILAAPen) erantzulea. Urtean behin, prozesu horiei buruzko informazioa ematen zaie agintari gainbegiraleei, Ikuskaritzako berrikuspen- eta ebaluazio-prozesuaren barruan ebaluatu ahal izateko. Gai hauek ukitzen ditu, batez ere, informazio horrek:

- Arriskuen eta ICAAP eta ILAAP prozesuen gobernamentua.
- Arriskuen definizioa, arrisku materialen ebaluazioa eta horien barruko kapitalaren kalkulua.
- Kapitalaren plangintza.
- Likideziaren nahikotasunaren ebaluazioa.
- Negozio-eredua
- Etorkizuneko jarduketaz plana.

Ondoren, aitortzen labur bat egiten da, hauek azaltzeko: negozio-eredua iraunkorra eta errentagarria dela, gobernantza egokia dela eta Entitatearen errealitateaz egokituta dagoela, eta baliabide propioek eta likideziak nahikotasunez estaltzen dituztela arau-beharrak eta barruan estimatutako beharrak.

### 3.9. Enpresa-estrategiaraz lotutako arrisku-profilaren azalpena

Azken Kapitalaren autoebaluazio-prozesuaren arabera, egindako analisisien emaitzak erakusten dute Caja Laboralak arrisku-profil ertain-txikia du. Arrisku ertain-txikiak esan gura du txikia dela Entitateak etorkizunean zailtasunak izateko duen arriskua; izan ere, berezko arrisku txikia du, barruko gobernu ona du eta arriskuak gestionatzeko eta kontrolatzeko sistema egokiak ditu bere jarduerarako.



## 4. Gobernu korporatiboa

a) *Administrazio-organoan karguak dituzten Zuzendaritzako kideak*

Kontseilu Errektorean ez dago Zuzendaritza Kontseiluko kiderik.

b) *Zuzendaritza-organoko kideak hautatzeko politika eta haien ezagutzak, eskumenak eta esperientzia*

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreko araudiaren 5. artikuluan jasota dagoenez, kooperatibaren Kontseilu Errektoreak 12 kide titular izango ditu gutxienez eta 13 gehienez, Estatutu Sozialetako lehen xedapen iragankorrean ezarritakoaren kalterik gabe. Hamahirugarren kidea, dagokionean eta legearen aginduz kooperatiba behartuta badago, kooperatibako kontratu mugagabedun langile bat izango da. Ezin izango da beste entitate bateko jarduneko langile izan, ezein tituluren bidez ere, eta gainerako kontseilarien agintaldi eta araubide berberak izango ditu. Era berean, kooperatiben legedian aurreikusitakoan arabera hautatu eta kargugabetuko da. Horiekin batera, 6 ordezko izendatuko dira, titularrek kargua behin betiko utziz gero haiek ordeztuko, estatutuen arabera agintaldia amaitzeko geratzen den denboran.

4 kide titular eta 2 ordezko lan-bazkideen artean izendatuko dira. 8 kide titular eta 4 ordezko gainerako bazkideen artean izendatuko dira. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu kide titularrak eta ordezkoak. Bozketa sekretua izango da, eta boto-kopuru handienaren arabera aukeratuko dira. Kontseilari pertsona juridikoen kasuan, pertsona fisiko 1 izendatu beharko da, karguaren eginkizunak betetzeko.

2012ko azaroan sinatutako Bat egiteko Erabakiaren Lehen Xedapen Iragankorrean, Ipar Kutxako beste hiru kide izendatzea erabaki zen eta arian-arian murriztuz joango zela kopurua. 2017ko apirilaren 1eko Batzarraren ondoren, 12 kide ditu berriro.

Kontseilu Errektoreko kideek egokitasun-baldintza batzuk bete behar dituzte: ohore komertzial eta profesional aitortua izatea, beren eginkizunak betetzeko ezagutza eta esperientzia egokiak izatea eta ongi gobernatzeko prest egotea. Halere, Kontseilu Errektorearen egokitasunak agerikoa izan behar du bere osotasunean, partaideen profil-aniztasuna aintzat hartuta, haren independentzia eta autonomia sendotzeko.

### 1. Ohore komertziala eta profesionala

Gestio osasungarria eta zuhurra gauzatzeko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonala, komertziala eta profesionala izan dutenek betetzen dute baldintza hori.

Hauek dira ohore komertziala eta profesionala ebaluatzeko aintzat hartu beharreko aldagaiak:



(1) Kargudunaren ibilbidea, araugintzako eta gainbegiratzeko agintariekiko harremanetan; aurreko postu edo karguak kentzeko edo utzarazteko arrazoiak; kaudimen pertsonalari eta betebeharrak betetzeari buruzko historia; lanbide-jarduna, baldin eta erantzukizun-karguak bete baditu, jarduketa-prozesu goiztiarrean edo suntsiarazpen-prozesuan egon diren kreditu-erakundeetan, edota konkurtso-araudiaren arabera desgaitu badute, konkurtsoko kalifikazio-epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoen bitartean; eta aipatu den araudia indarrean sartu aurreko konkurtso-prozeduretan errehabilitatu ez diren porrot eginak eta konkurtsopekoak.

(1) puntu horren eraginetarako, aldagai hauek hartuko dira bereziki kontuan:

- Kaleratzerik dagoen eta jurisdikzio eskudunak epai irmo bidez (lehen auzialdian bada ere) bidezko kaleratzezat jotzeko arrazoiak dauden, laneko arautegiaren arabera (aurretik lan-harremana izanez gero).
- Lanekoa ez den kargu- edo postu-uzterik dagoen aurretik, betebeharrak ez betetzeagatik, kargutik kentzeko erabakia hartu zuen organoaren aktan edo eragindakoari kargugabetzea jakinarazteko jakinarazpenean horrela jasotzen denean.
- Epai irmorik dagoen, pertsona hori erantzukizun-ekintza sozial edo indibidual baten erantzulezat hartzen duena, Kapital Sozietateen Legearen arabera edo 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Kreditu Kooperatiben Legea garatzeko Erregelamenduaren (1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuak onetsi zuenaren) 23.3. artikulua aurreikusitakoaren arabera. Kontuan hartuko da, halaber, antzeko irismena duen ekintza korporatiborik dagoen, kapitalistak ez diren erakundeetan karguak edo postuak betez gero.
- Konkurtso-araudiaren arabera desgaikuntzarik dagoen, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitzen ez den bitartean.

(2) Delitu edo falta baten ondoriozko kondenarik eta arau-hauste administratiboaren ondoriozko zehapenik dagoen, honako hauek kontuan hartuta: (i) delitua, falta edo arau-hauste administratiboa dolozkoa edo zuhurtziagabekeriazkoa den; (ii) kondena edo zehapena epai irmoa den; (iii) ezarritako kondenaren edo zehapenaren larritasuna; (iv) kondena edo zehapena eragin zuten gertakarien sailkapena, arreta berezia eskainiz ondarearen, kapital-zuriketari buruzko araudiaren, ordena sozioekonomikoaren, herri-ogasunaren edo gizarte-segurantzaren kontrako delituei edo banku-jarduera, aseguruena, balore-merkatuarena eta kontsumitzaileen babesa arautzeko arauak hausten dituztenei; (v) kondena edo zehapena eragin zuten gertaerak norberaren onerako edo hirugarrenen txarrerako diren eta, dagokionean, kondena edo zehapena eragin duen gertaeren garrantzia, kreditu-entitatean kontseilariak dituen edo emango zaizkion eginkizunei begira; (vi) legez kontrako gertaera penal edo administratiboaren preskripzioa eta erantzukizun penalaren balizko iraungipena; (vii) aringarriak dauden eta delituaren edo arau-



haustearen ondorengo portaera nolakoa den; eta (viii) delitu, falta edo arau-hausteen ondoriozko kondena edo zehapen gehiago dagoen.

(3) Arlo penalean zein administrazio-arloan ikerketa aipagarri eta oinarridunik dagoen, (2) (iv) puntuan aipatutako gertaeraren baten gainean. Dena den, kontseilari bat karguan dagoela arrazoi horiengatik ikertua bada, ez du esan nahiko ohorerik eza dagoenik.

Kontseilariak pertsona juridikoak badira, baldintza horiek aintzat hartuko dira, bai pertsona juridikoa ordezkatzan duen pertsona fisikoarengan, bai kontseilari den pertsona juridikoarengan.

## **2. Ezagutza eta esperientzia egokiak**

Kontseiluko kideek, orotara, kreditu-erakundeak gobernatzeko moduko ezagutzak, eskuduntzak eta esperientzia izango dituzte, entitatearen jarduerak egoki ulertzeko, arrisku nagusiak barne, eta Kontseilu Errektorearen gaitasun efektiboa bermatzeko, Entitatearen mesedetan erabakiak independentziaz eta autonomiaz har ditzan.

Baterako balorazio horretan bermatu beharko da, Kontseilu Errektoreak beharrezko profilak dituela, Izendapenen Batzordeari, Ordainsarien Batzordeari, Arrisku Batzordeari, Ikuskaritza Batzordeari eta araudiak galdatutako beste edozein batzorderi esleitutako eginkizunak egoki betetzeko.

Baterako balorazioa Kontseilu Errektorearen osaera aldatu behar den bakoitzeko egingo da, urtean behin gutxienez.

Ez da beharrezkoa izango kontseilari guztiek ezagutza- eta esperientzia-maila bera izatea, ezta kontseilari guztiek bi baldintza horiek betetzea ere, betiere haietako bat gutxienez badute eta kontseilari gehienek biak betetzen badituzte.

### **2.1 Banakako ezagutza egokiak**

Pertsona hauek dituzte ezagutza egokiak:

- Lizentziadun-titulua edo baliokidea dutenek. Tituluak ekonomiarekin, enpresen administrazioarekin eta zuzendaritzarekin, finantzekin, finantza-erakundeekin edo zuzenbidearekin lotutako edozein espezialitateri buruzkoa behar du izan.
- Beste edozein lizentzia edo titulu baliokide dutenek, baldin eta aurreko puntuan adierazitako gaietako buruzko prestakuntza badute, ofizialtzat jotako zentro espezializatuetan egindako masterren, graduondoko ikasketen edo prestakuntza-ikastaroen bidez.
- Lizentziadun-titulua izan ez arren edo, lizentziadunak izanik, aurreko puntuetako prestakuntza ez dutenek, baldin eta hau egiaztatzen badute:





- 3 urteko edo gehiagoko prestakuntza praktikoa dutela kreditu-erakundeetan (adibidez, finantza-zerbitzuen, banku-zerbitzuen edo arrisku-gestioaren arloetan).
- 3 urtez edo gehiagoz kreditu-erakunde bateko Administrazio Kontseiluko edo Kontseilu Errektoreko kideak izan direla.
- 3 urtean edo gehiagoan enpresetan nahiz edozein motatako merkataritza-erakundetan zuzendaritza nagusiko eginkizunak edo finantzetako, administrazioko nahiz zuzenbideko zuzendaritza-betebeharrak izan dituztela, Entitateko postuen edo erantzukizunen tamainarekiko eta garrantziarekiko proportzioan. Eragin horietarako, ulertuko da Entitateko postuen edo erantzukizunen tamainarekiko eta garrantziarekiko proportzionalak diren ezagutza egokiak dituztela, betiere, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren edo hura ordeztzen duen erregulazioaren arabera, enpresa ertaina baino handiagoa den edozein enpresatan gestoreak edo finantza-zuzendariak izan direla frogatzen badute.

## 2.2 Banakako esperientzia egokia

Pertsona hauek dute esperientzia egokia:

- Espainiako Bankuaren, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren edo atzerriko organismo baliokide baten ikuskaritzapean osorik edo partzialki dauden kreditu-erakundeetan edo beste erakunde batzuetan 3 urtez edo gehiagoz zerbitzuak eman dituzten pertsonak, finantza-zerbitzuen, banku-zerbitzuen edo arrisku-gestioaren arloetan.
- 3 urtez edo gehiagoz kreditu-erakunde bateko Administrazio Kontseiluko edo Kontseilu Errektoreko kide izan direnek.
- 3 urtez edo gehiagoz goi-administrazioko, zuzendaritzako edo kontroleko eginkizunak bete dituztenek, edo finantza-zerbitzuen, zuzenbide-zerbitzuen nahiz arrisku-gestioaren (Entitatearen jardueran daudenen antzekoen) arloetan jardun dutenek, Espainiako edo atzerriko edozein erakunde publiko edo pribatutan. Enpresa horien tamaina eta garrantzia Entitatearenen antzekoak izango dira, bai eta postuen konplexutasuna ere.

Ildo horretan, Entitateko postuen edo erantzukizunen tamainarekiko eta garrantziarekiko proportzionalak diren esperientzia egokia dutela ulertuko da, betiere, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren edo hura ordeztzen den erregulazioaren arabera enpresa ertaina baino handiagoa den edozein enpresatan gestoreak edo finantza-zuzendariak izan direla frogatzen badute.



### 3. Gobernamendu onerako prestutasuna

Kontseilariak zintzotasunez, osotasunez eta ideia-independentziaz jardungo dute, gobernamendu onerako prest egon daitezen.

Helburu horrekin, jarraian adieraziko ditugun faktoreak balioetsiko dira, gatazka jarraitu edo estrukturalik sor ez dezaten kontseilariaren eta Caja Laboralaren interesen artean, eta kontseilariari bere eginkizunetarako behar beste denbora hartzea eragotz ez diezaioten.

Hauek izan daitezke faktore horiek:

- Iraganean edo orain beste erakunde pribatu edo publiko batzuetan karguak izatea eta, hori dela eta, interes-gatazkek sortzeko arriskua egotea.
- Caja Laboralaren edo horrek kontrolatutako sozietateen Kontseilu Errektoreko beste kide batzuekin harreman pertsonala, profesionala edo ekonomikoa izatea eta, hori dela eta, interes-gatazkek sortzeko arriskua egotea.
- Caja Laboralaren edo horrek kontrolatutako sozietateen kontrolaz arduratzen diren bazkideekin harreman pertsonala, profesionala edo ekonomikoa izatea eta, hori dela eta, interes-gatazkek sortzeko arriskua egotea.
- Hiru kooperatiba baino gehiagoan edo beste kreditu-erakunde batean kontseilari izatea edo pareko posturen batean egotea. Hautagaiaren egokitasuna balioetsi aurretik, Izendapenen Batzordeak adostasuna eskatuko dio Kontseilu Errektoreari, aldi berean Caja Laboralean eta beste kreditu-erakunde batean kontseilari izateari buruz.
- Lanbidea edo lanpostua dela eta Caja Laboralaren gaiez arduratzeko zailtasuna izatea.
- Edozein arrazoiengatik Kontseilu Errektorearen bileretara joateko edo Caja Laboralaren gaiez arduratzeko gaitasun fisikoa edo psikikoa ez izatea, 6 hilabetez edo gehiagoz.
- Caja Laboralarekin edozein motatako mugaeguneratutako zor galdagarriak izatea, bai bere aldetik, bai beste pertsona edo erakunde batzuen ordezkarietan, edo zor horiek dituen enpresa bateko kontseilaria, goi-zuzendaria edo langilea izatea edo bere karguan dagoela Caja Laboralarekiko betebeharrak ez betetzea, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen 9.8 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Zalantzarik arriskuko bezeroa izatea edo horrelakotzat hartutako erakunde bateko kontseilaria, goi-zuzendaria edo langilea izatea. Kontseilari den pertsona



juridikoaren kasuan, hori ordezkatzeko duen pertsona fisikoari ere eragiten dio baldintza horrek.

Era berean, Caja Laboralean erabakiak hartzeko prozesua eta goi-zuzendaritzako erabakiak ebaluatu eta zalantzan jartzeko kontseilariak duen gaitasuna ere balioetsiko da.

Laugarren puntu honetan xedatutakoaren kalterik gabe, Caja Laboralaren Kontseilu Errektoreko kideari hauetako konbinazioen bat onartuko zaio soilik:

- Kargu exekutibo 1 eta exekutiboak ez diren 2 kargu izatea.
- Exekutiboak ez diren 4 kargu izatea.

Konbinazioon irismena egoki interpretatu ahal izateko, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularraren 34. arauan ezarritakoari jarraituko zaio.

- c) *Aniztasun-politika, Zuzendaritzako kideen hautaketari dagokionez, politika horretan ezarritako helburu eta xedeei dagokionez, eta helburu eta xede horien betetze-mailari dagokionez*

2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-erakundearen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, garatzen duen 84/2015 Errege Dekretuaren 38. artikulua arabera, administrazio-kontseiluan ordezkari txikiak duen sexuarentzako ordezkari-helburu bat finkatu behar dute entitateek, eta orientabideak sortu behar dituzte, ordezkari txikiak duen sexu pertsona-kopurua handitzeko eta, horrela, helburu hori erdiesteko.

Kontseilu Errektoreak honako hau erabaki zuen 2015eko abenduan: hautagaiak aukeratzeko prozesuan, diskriminazioa eragin dezakeen eta sexu bateko edo besteko pertsonak aukeratzeko oztoka dezakeen edozein joera saihestea, eta 2020rako, emakumezko kontseilariak gutxienez Kontseilu Errektoreko kide guztien herenak izatea.

2017ko abenduaren 31n, Kontseilu Errektorearen osaketa parekidea da.

- d) *Arrisku Batzordea*

Kreditu-erakundearen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko 10/2014 Legearen 37. eta 38. artikuluetan finkatutakoaren arabera, 2014. urtearen bukaeran Arrisku Batzorde bat eratu zen, arriskuak gestionatzeko. Eginkizun hori Kontseilu Errektorearen ardurapean dago, eta eginkizun operatiboetatik kanpo egon behar du, arriskuaren jarraipenari espezializazio eta sakontasun handiagoak emateko. 2017-12-31n, Kontseilu Errektoreko 5 kidek osatzen zuten Batzordea.



Arrisku Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11 bis artikuluan) daude jasota. Hauek dira:

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, Entitatearen arriskurako joera orokorraren (egungoaren eta etorkizunekoaren) eta arlo horretako estrategiaren inguruan, eta laguntzea estrategia hori eta arriskuak gestionatu, ikuskatu eta murrizteko politika zehatzak ezartzen diren jagoten.
- Bezeroei eskainitako aktibo eta pasiboen prezio-politikak enpresa-eredua eta entitatearen arrisku-estrategia kontuan hartzen dituela zaintzea. Hala ez bada, Arrisku Batzordeak egoera hori konpontzeko plana aurkeztuko dio Kontseilu Errektoreari.
- Kontseilu Errektorea aholkatzea, Entitateko arrisku esanguratsu guztiak kudeatu eta ikuskatzen.
- Arriskuak direla eta, estres-testari eta kapital-plangintzari lotutako aholkularitza ematea Kontseilu Errektoreari.
- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolakuntza eraginkorra izateko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.
- Kontseilu Errektoretik erakundera eta alderantziz arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela zaintzea eta batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak jaso behar duten arriskuei buruzko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea Kontseilu Errektorearekin batera.
- Aktiboen balorazioa, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera, arriskuei buruzko barne-ereduak eta funtzionalki Batzordearen mende dagoen Arriskuak Gestionatzeko Unitatea gainbegiratzea.
- Zentzuzko ordainsari-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Horretarako, Arrisku Batzordeak aztertu egingo du ordainsari-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak arriskua, kapitala, likidezia eta etekinen aukera eta egokitasuna kontuan hartzen ote dituen, baina betiere Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen eginkizunari kalterik eragin gabe.
- Gainera, indarreko legerian nahiz Estatutu Sozialetan zehaztutako gainerako eginkizunak eta Kontseilu Errektorearen erabakiz esleitu ahal zaizkionak ere bete beharko ditu.

Araudiaren arabera, Arrisku Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deialdia eginda edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiago soiluz hartuko dira eta lehendakariaren botoak berdinketak erabakiko ditu. 2017an zehar, Batzordeak 9 bilera egin ditu.



e) *Kontseilu Errektoreari arriskuei buruz eman beharreko informazio-fluxuaren azalpena*

Kontseilu Errektorea da, Entitatearen administrazio-organo gorenaren aldetik, Entitateak hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken arduraduna. Hori dela eta, arriskuak zorrotz kontrolatzeko eskatzen dio Zuzendaritza Nagusiari, baita, batzordeen eta txostenen bidez, arriskuen inguruko informazioaren deskargu sistematikoa bidaltzeko ere.

### **Komisioak**

- Eragiketa Batzordea

Eragiketa Batzordeak hamabostean behin egiten ditu ohiko bilkurak; apartekoak, ostera, lehendakariak deitzen dituenetan. Lehendakariak, Kontseilu Errektoreko beste 4 kidek, zuzendari nagusiak eta Zuzendaritzako beste 4 kidek hartzen dute parte batzorde horretan.

Bezeroen kreditu-arriskurako proposamenak aztertu eta onestea da haren eginkizuna, zenbatekoan inolako mugarik gabe eta Kontseilu Errektoreak eginkizun horretarako eskuordeturik. Hilean behin, jardueraren berri emango beharko dio Kontseilu Errektoreari.

- Ikuskaritza Batzordea

Kontseilu Errektoreak Ikuskaritza Batzorde bat izendatuko du bere baitan. Kontseilu Errektoreak berak zehaztuko du zenbat kontseilarik osatuko duten Batzordea. Gutxienez 3 izango dira, ez-exekutiboak guztiak, eta, horiek izendatzeko, kontuan hartuko ditu bakoitzaren ezagutza, gaitasuna eta esperientzia, bai eta Batzordearen zeregina ere. Ikuskaritza Batzordeko kide gehienak independenteak izango dira.

Kontseilu Errektoreak kide independenteen artean hautatuko du Batzordeko lehendakaria, eta 4 urtean behin ordeztu egin beharko da. Lehendakari hori berriro hautatu ahal izango da, kargua utzi eta urtebete igaro ondoren.

Ikuskaritza Batzordeak eskumen hauek izango ditu gutxienez:

- Batzordean aztertu diren bere eskumeneko gaien berri ematea Batzar Nagusiari.
- Entitatean ezarri beharreko araudiarekin bat, kontu-ikuskaritza edo ikuskaritza-sozietateak izendatzeko, karguberritzeko edo kargugabetzeko proposamenak Kontseilu Errektoreari aurkeztea, Batzar Nagusiak dagokion erabakia har dezan.
- Sozietatearen barne-kontrolaren (hau da, funtzionalki Batzordearen mende dagoen barne-ikuskaritzaren) eta arriskuak gestionatzeko sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea. Ildo beretik, ikuskaritza egitean barne-kontrolerako sisteman aurkitutako ahultasun nabarmenak eztabaidatzea kontu-ikuskaritza edo ikuskaritza-sozietateekin.



- Araututako finantza-informazioa prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
- Kontu-ikuskariekin edo ikuskaritza-sozietateekin harremanetan egotea, beraien independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa, kontuen ikuskaritza-prozesuari lotutako beste edozein gairen ingurukoa eta kontu-ikuskaritzari buruzko legerian zein ikuskaritza-arauetan aurreikusita dauden jakinarazpenak jaso eta Batzordeak aztertzeko. Nolanahi ere, urtean behin kontu-ikuskariek eta ikuskaritza-sozietateek idatziz bermatu beharko diote zuzenean edo zeharka haiekin zerikusia duten erakundearekiko edo erakundeekiko independenteak direla. Ildo beretik, ikuskari edo sozietateek nahiz beraiei atxikitako pertsonak edo erakundeak aipaturiko erakunde horiei emandako zerbitzu osagarriari buruzko informazioa eman beharko diote, Kontu Ikuskaritzei buruzko 1988ko uztailaren 12ko 19/1988 Legeak xedatutakoarekin bat.
- Entitateak kanpo-auditorearekin kontratatzea proposatzen duen auditoretzaz gaindiko zerbitzuak ebaluatu eta, dagokionean, onestea.
- Urtean behin, kontu-ikuskaritzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-ikuskarien edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko iritzia jasoko duen txostena argitaratzea. Edozein kasutan, aurreko atalean aipatu dugun zerbitzu osagarriak emateari buruzko iritzia eman beharko du txosten horretan.
- Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.

Ikuskaritza Batzordea beharrezkotzat jotzen denean bilduko da, lehendakariak deituta, dela beraren ekimenez, dela edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan behar dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.

Barneko ikuskaritzaz arduratzen den pertsona bilerara joatea eskatu ahal izango du Batzordeak, eta pertsona horrek nahitaez eman beharko du laguntza eta eskatzen zaion informazioa. Ildo beretik, Batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kideri, Kooperatibako edozein langileri edota kontu-ikuskariei eskatu ahal izango die bileretan parte hartzea.

Batzordea baliozki osatuta geldituko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak. Batzordeak saioen aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.

Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorarako ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Era berean, Ikuskaritza Batzordeak araudi propioa izateko aukera du, Batzordeak berak proposatuta eta Kontseilu Errektoreak onartuta. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.



2017-12-31n, 3 kide ditu Batzordeak, eta 10 bilera egin ditu 2017ko ekitaldian zehar.

- Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea

Kontseilu Errektoreak Izendapenen Batzorde bat eta Ordainsarien Batzorde bat eratuko ditu bere baitan, kontseilari ez-exekutiboz osatuta. Kideen heren batek gutxienez eta Kontseilu Errektoreak izendatutako 2 batzordeotako lehendakariak kontseilari independenteak izateko baldintzak bete beharko dituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten batzorde bakoitza, baina 3 izango dira gutxienez.

Batzordeak beharrezkotzat jotzen denean bilduko dira, lehendakariak deituta, dela beraren ekimenez, dela edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan beharko dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.

Batzordeak baliozki eratuta geldituko dira bilerara kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeotako kideek boto bana izango dute eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Batzordeek bilkuren aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango diote Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.

Entitatean bere zereginari lotutako eginkizunak betetzen dituzten pertsonak bileretara joatea eskatu ahalko dute batzordeek.

Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorerako ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Era berean, batzordeek araudi propioa izateko aukera dute, batzordeek beraiek proposatuta eta Kontseilu Errektoreak onartuta. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

Hona hemen Izendapenen Batzordearen eginkizunak:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak betetzeko hautagaiak bilatzea eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren arteko oreka ebaluatzea, izendapen zehatz baterako eginkizunak eta behar diren trebetasunak zehaztea eta postua betetzeko aurreikusita dagoen arduraldia baloratzea.
- Aldian-aldian, eta gutxienez urtean behin, Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, osaera eta jardunbidea ebaluatzea, eta egin litezkeen aldaketen inguruko gomendioak ematea berari.



- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektoreko kideen eta Kontseiluaren beraren egokitasuna ebaluatzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian-aldian, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika aztertzea eta horren inguruko gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
- Kontseilu Errektorean ordezkariarik txikiena duen sexuak izan beharreko gutxienerako ordezkariaren inguruko helburua finkatzea eta, helburu hori betetzeko, ordezkariarik txikiena duen sexuko pertsona-kopurua handitzeko orientabideak ematea.
- Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Bere eginkizunen artean egongo da, halaber, Kontseilu Errektorearen erabakiak pertsona bakarraren edo talde txiki baten mende ez daudela bermatzea, ahal den neurrian eta etengabe, eta, ondorioz, Entitate osoaren interesen kalterako ez direla.

Izendapenen Batzordeak bere eginkizunak ongi betetzeko egoki deritzen baliabideak erabili ahal izango ditu, kanpoko aholkularitza ere barne. Hala, horretarako behar dituen fondoak jasoko ditu.

Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko langileen egokitasuna balioztatu eta informatzeko ondorioetarako, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan oinarrituko da Batzordea.

Izendapenen Batzordeak 5 kide ditu eta 4 aldiz bildu da 2017ko ekitaldian.

Hona hemen Ordainsarien Batzordearen eginkizunak:

- Kontseilu Errektoreari entitateko ordainsari-politika orokorra proposatzea eta ordainsarien alorrean Kontseilu Errektoreak hartu beharreko erabakiak (Entitatearen arriskuan eta arriskuen kudeaketan eragina dutenak barne) prestatzea.
- Kontseilu Errektorea informatuta izatea identifikaturiko kolektiboan sartutako zuzendarien ordainsari-politikari buruz eta kontseilarien (izaera horregatik ordainketarik jasotzen dutenean) eta zuzendari nagusiaren eta parekoen ordainsari-politika orokorrari buruz, bai eta eginkizun exekutiboak betetzen dituzten Kontseilu Errektoreko kideen banakako ordainsariei eta kontratu-baldintzei buruz.





- Urtean behin ordainsari-politikaren aplikazioaren inguruko ebaluazio independente bat (barnekoa edo kanpoko) egiten dela bermatzea.
- Entitatean ezarritako ordainsari-politika egoki betetzen dela zaintzea, eta, aldi-aldi, identifikaturiko kolektiboko zuzendarien, kontseilari izateagatik ordainsaria jasotzen dutenen, zuzendari nagusiaren eta horien parekoen ordainsari-politika aztertzea.
- Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Erabakiak prestatzen dituenean, Ordainsarien Batzordeak bazkide, inbertsiogile eta Entitateko beste alderdi interesdun batzuen epe luzerako interesak eta interes publikoa bera hartuko ditu aintzat.

Araudi aplikagarriak agintzen badu Kontseilu Errektoreak langileen ordezkariak izan behar dituela, Ordainsarien Batzordeak ere langileen ordezkari bat edo gehiago izango du.

Ordainsarien Batzordeak 5 kide ditu eta 4 aldiz bildu da 2017ko ekitaldian.

- Arrisku Batzordea

Kontseilu Errektoreak funtzio exekutiborik ez duten kontseilariak osaturiko Arrisku Batzorde bat izendatu du bere baitan. Kontseilari horiek Entitatearen arrisku-estrategia eta arriskuarekiko joera erabat ulertu eta kontrolatzeko ezagutza, gaitasuna eta esperientzia izan behar dituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilari osatuko duten batzordea, baina 3 izango dira gutxienez.

Kideen heren bat gutxienez, eta Kontseilu Errektoreak izendatuko duen lehendakaria betiere, kontseilari independenteak izango dira.

Arrisku Batzordeak, eginkizun operatiboak ez ezik, puntu honetako d) atalean zerrendatutako eskuduntzak ere izango ditu.

- Beste batzorde batzuk

Kontseilu Errektoreak, batzorde horietan zuzenean parte hartzen ez badu ere, Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBren) eta Eragiketa Arriskuaren Batzordearen (EABren) deskargua jasoko du goi-zuzendaritzatik. Bestalde, Aktiboen eta Pasiboen Batzordeko eta Eragiketa Arriskuaren Batzordeko arduradunek Kontseilu Errektoreko ohiko eta ezohiko bilkuretarako deia jaso dezakete.



## **Txostenak**

Kontseilu Errektoreko kideek, xede horrekin finkatutako atariaren bidez, txosten (eta bertsio historiko) hauek dituzte, etengabe, eskura:

- Plan Estrategikoa
- Gestio Plana
- Urteko Ikuskaritza Txostenak
- Arriskuen txostenak
- Gobernu Korporatiboaren Txostena
- Kapitalaren Autoebaluazio Txostena
- Zuhurtziazko Garrantziko Txostena
- Heziketako eta Sustapeneko Fondoa
- Kapitalak Zuritzeari buruzko Txostena
- EGE txostena

Era berean, hala beren ekimenez nola Zuzendaritzaren ekimenez, interesaren edo abagunearen arabera egokiak iruditzen zaizkien deskargu edo txostenak eskura ditzakete.



## 5. Fondo propioei buruzko informazioa

### a) 2017ko abenduaren 31ko baliabide propioei buruzko informazioa

	Balioa (mila €-kotan)	Hondar- zenbatekoa (mila €-kotan)
<b>1. mailako kapital arrunta: tresnak eta erreserbak</b>		
Kapital-tresnak eta horien jaulkipen-primen kontuak	727.168	
Horietatik: 1. tresna-mota	727.168	
Metatutako bestelako emaitza bat (eta beste erreserba batzuk)	918.955	
Emaitza onargarriak	70.792	
<b>1. mailako kapital arrunta arauzko doikuntzen aurretik</b>	<b>1.716.915</b>	
<b>1. mailako kapital arrunta: arauzko doikuntzak</b>		
Aktibo ukiezinak (zergen ondoriozko pasiboak kenduta) (zenbateko negatiboa)	-31.638	
Etorkizuneko emaitzen menpe dauden geroratutako zergengatik aktiboak, denbora-aldeen ondorioak salbu (zergen ondoriozko pasiboak kenduta, 38. artikulua 3. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen direnean) (zenbateko negatiboa)	-22.505	-5.626
Entitate baten 1. mailako kapital arrunteko tresna propioen edukitza zuzeneko eta zeharkakoak (zenbateko negatiboa)	-7	
Finantzen sektoreko erakundeen 1. mailako kapital arrunteko tresnen edukitza zuzen, zeharkako eta sintetikoak, erakunde horiek Entitatearekin elkarrekiko edukitza dutenean, Entitatearen fondo propioak artifizialki handitzeko helburuarekin (zenbateko negatiboa)	-1.425	
Balorazioagatiko doikuntzak	-77.070	
<b>1. mailako kapital arruntaren arauzko doikuntzak guztira</b>	<b>-132.645</b>	
<b>1. mailako kapital arrunta</b>	<b>1.584.270</b>	
<b>1. mailako kapital-tresna gehigarria: tresnak</b>		
<b>1. mailako kapital gehigarria: arauzko doikuntzak</b>		
<b>2. mailako kapitala: tresnak eta hornidurak</b>		
<b>2. mailako kapitala arauzko doikuntzen aurretik</b>	<b>31.654</b>	
<b>2. mailako kapitala: arauzko doikuntzak</b>		
<b>2. mailako kapitala</b>	<b>31.654</b>	
<b>KAPITALA GUZTIRA (Kapitala guztira = 1. mailako kapitala + 2. mailako kapitala)</b>	<b>1.615.924</b>	
<b>Kapital-ratioak eta koltxoak</b>		
<b>1. mailako kapital arrunta (arrikuarekiko esposizioaren zenbateko osoaren ehunekoa)</b>	<b>% 18,14</b>	
<b>1. mailako kapitala (arrikuarekiko esposizioaren zenbateko osoaren ehunekoa)</b>	<b>% 18,14</b>	
<b>Kapitala guztira (arrikuarekiko esposizioaren zenbateko osoaren ehunekoa)</b>	<b>% 18,50</b>	
<b>Entitatearen koltxo espezifikoen eskakizunak (*)</b>		
(*) 1. mailako kapital arruntaren eskakizuna, 92. artikulua 1. ataleko a) letran xedatutakoari jarraikiz, eta kapitalari eusteko koltxoaren eskakizunak, gehi zikloen aurkako kapitalaren koltxoia, gehi arrisku sistemikoaren ondoriozko koltxoia, gehi garrantzi sistemikoko entitateentzako koltxoia, arrikuarekiko esposizioaren zenbatekoaren ehunekotan adierazia.	% 5,75	
<b>Horietatik: Entitatearen koltxo espezifikoen eskakizunak (*)</b>		
(*) Phased-In bertsioaren datua, Fully-Loaded bertsioan % 2,5eko zatekeen.	% 1,25	
<b>Kapital-koltxoaren eskakizunei erantzuteko eskuragarri dagoen 1. mailako kapital arrunta (arrikuarekiko esposizioaren zenbateko osoaren ehunekoa)</b>	<b>% 18,14</b>	
<b>Kenketa-atalaseen azpiko zenbatekoak (arrikuarekiko aurretik)</b>		
Entitateak finantza-sektoreko erakundeetan zuzenean eta zeharka duen kapitala, horietan inbertsio nabarmenik ez duenean (% 10eko atalasetik beherako zenbatekoa, posizio labur onargarriak kenduta)	26.768	
Finantza-sektoreko erakundeek zuzenean eta zeharka dituzten 1. mailako kapital arrunteko tresnak, Entitateak horietan inbertsio nabarmenik ez duenean (% 10eko atalasetik beherako zenbatekoa, posizio labur onargarriak kenduta)	128.035	
Denbora-aldeek eragindako geroratutako zergen ondoriozko aktiboak (% 10eko atalasetik beherako zenbatekoa, zerga lotuengatik pasiboak kenduta, baldin eta 38. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen badira)	76.778	
2. mailako kapitalean sartutako kreditu-arrikuagatiko doikuntzak, metodo estandarren mendeko esposizioei dagokienez (muga aplikatu aurretik)	31.654	
Kreditu-arrikuagatiko doikuntzak metodo estandarra erabiliz 2. mailako kapitalean sartzei buruzko muga	6.347.702	
<b>Mailaz mailako eskusioari buruzko xedapenen mende dauden kapital-tresnak</b>		
Ez da aplikagarria		

6. taula: Baliabide propioei buruzko informazioa.



- b) 1. mailako kapital arrunteko, 1. mailako kapital gehigarriko eta 2. mailako kapitaleko elementuak eta iragazki eta kenkariak berdinkatzea

<b>KONTABILITATE-KAPITALA ETA CAPITAL ERREGULATORIOA BERDINKATZEA</b>	
<b>Osagai konputagarriak</b>	<b>(mila €-kotan)</b>
Kapitala	727.168
Erreserbak	809.890
Balore propioak	-1.431
Egotzitako emaitza	112.849
Dibidenduak eta ordainsariak	-29.113
<b>Fondo propioak guztira (Balantze Publikoa)</b>	<b>1.619.363</b>
Balorazioagatiko doikuntzak	109.065
<b>Ondare garbia guztira (Balantze Publikoa)</b>	<b>1.728.428</b>
Kontabilitate-perimetroaren eta zuhurtziazkoaren arteko aldeagatiko doikuntzak	1.367
<b>Ondare garbia guztira (Balantze Erreserbatua)</b>	<b>1.729.795</b>
Emaitzen beste banaketa batzuk	-12.887
Balorazioagatiko doikuntza ez-konputagarriak	-77.070
<b>Kaudimenari dagokionez konputagarria ez den ondarea</b>	<b>-89.957</b>
Merkataritza-fondoak eta bestelako ukiezinak	-31.638
Etorkizuneko emaitzen mende dauden geroraturako zergengatiko aktiboak	-22.505
Finantzen sektoreko elkarrekiko edukitzadun erakundeetako partaidetza	-1.425
<b>Kenketak guztira</b>	<b>-55.568</b>
<b>CET 1</b>	<b>1.584.270</b>

7. taula: Kapitaleko elementuak berdinkatzea.

- c) 1. mailako kapital arrunteko, 1. mailako kapital gehigarriko eta 2. mailako kapitaleko tresna guztien ezaugarriak eta baldintzak

1. mailako kapital arruntak (CET1) osagai hauek ditu:

- Kapital soziala: 727.168 mila €-koa.
- Emaitza onargarriak: 70.792 mila €-koak.
- Erreserbak: 809.890 mila €-koak.
- Balorazioagatiko doikuntzak: 31.995 mila €-koak.

Ez dago 1. mailako kapital-tresna gehigarririk.



2. mailako kapital gisa 31.654 mila € zenbatetsi dira eta Kreditu-arriskueterako estaldura osagarria metodo estandarren bidez atalari dagozkie.

Entitatearen kapital soziala 727.168 mila €-koa da eta bazkideek (pertsona fisikoek eta pertsona juridikoak) zein bazkide kolaboratzaileek egindako ekarpenek osatzen dute. Bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu, pertsona juridikoa denean, eta % 2,5, pertsona fisikoa denean. 2017ko abenduaren 31n, Lagun Aro Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetako Erakundea da, zuzenean edo zeharka, Entitatearen kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra: % 15,26 du (2016an, % 15,19 zuen).

Ekitaldi bakoitzean, Kontseilu Errektoreak ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa baino 6 puntu handiagoa. 2014ko ekitalditik aurrera, ohiko ekarpenetarako urteko interesa % 4koa izan da.

*d) Zuhurtziazko iragazkien, egindako dedukzioen eta deduzitu gabeko elementuen izaera eta zenbatekoa*

Ikusi a) idatz-zatia.

*e) Arautegi honi jarraikiz fondo propioen kalkuluan erabilitako murriztapenen eta murriztapen horiek aplikatzen zaizkien tresna, zuhurtziazko iragazki eta dedukzioen azalpena*

Ikusi a) idatz-zatia.



## 6. Kapital-eskakizunak

Ondorengo taulan, 2017ko abenduaren 31ko kapital-eskakizunen xehetasuna ageri da, arrisku-motaren arabera sailkatuta.

KAPITAL-ESKAKIZUNAK 2017KO ABENDUAREN 31N		
Arrisku-mota	Haztatutako esposizioa arriskuaren arabera (mila €-kotan)	Eskatutako zenbatekoa (mila €-kotan)
Kredituaren eta kontrako alderdiaren arriskua	8.053.382	644.271
Likidazio- edo entrega-arriskua	0	0
Posizioaren, kanbio-tasaren eta lehengaien arriskua	19.605	1.568
Eragiketa-arriskua	641.965	51.357
Gastu finko orokorren ondoriozko arriskuarekiko esposizioaren zenbateko gehigarria	0	0
Kredituaren balorazioagatiko doikuntzaren arriskuarekiko esposizioaren zenbatekoa guztira	18.768	1.502
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.733.720</b>	<b>698.698</b>

8. taula: Kapital-eskakizunak arrisku-motaren arabera.

- a) *Kreditu-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, metodo estandarren bidez*

Caja Laboralak metodo estandarra erabiltzen du kreditu-arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak ebaluatzeko, hau da, haztatutako arrisku-esposizioa % 8z biderkatzen du. Horrela, 644.271 mila €-ko kapital-eskakizuna lortzen da. Beheko taulan, eskakizunak esposizioaren kategoriaren arabera banakatuta ageri dira.

	ZENBATEKOA (mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	0
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	0
Sektore publikoko erakundeak	6.735
Garapenerako banku aldeaniztunak	0
Nazioarteko erakundeak	0
Entitateak	18.332
Enpresak	68.100
Txikizkariak	116.619
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	280.494
Ez-ordaintzeetako esposizioak	51.488
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	11.027
Bono bermatuak	0
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	383
Beste esposizio batzuk	87.289
Errenta aldakorra	3.804
<b>GUZTIRA</b>	<b>644.271</b>

9. taula: Kreditu-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen errekerimendua. Metodo Estandarra.



- b) *Kontrako alderdiaren arriskuagatiko eta negoziazio-zorroari dagozkion posizio- eta likidazio-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, kalkulatzeko erabili den metodoa adieraziz*

Negoziazio-zorroari lotutako arriskuei erantzuteko baliabide propioen eskakizunak, metodo estandarren bidez kalkulatuak, nahiko txikiak dira (1.568 mila €-koak), laburpen-taulan argi geratzen denez.

- c) *Kanbio-tasaren arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, kalkulatzeko erabili diren metodoak adieraziz*

Entitateak ez dauka kanbio-tasaren arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunik, 3.2.a) Arriskuaren gestioaren prozesuak eta estrategia atalean ezarritako politiken arabera, arrisku horretarako eskakizunek ez baitute inoiz gainditu baliabide propio konputagarri guztien % 2. Muga hori gainditu ez denez, eskakizunok hutsak dira.

- d) *Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, kalkulatzeko erabili den metodoa adieraziz*

Gaur egun, metodo estandarra erabiltzen da eragiketa-arriskua kuantifikatzeko. Modu horretara, 51.357 mila €-ko eskakizuna kalkulatu da.

- e) *Gaur egungo eta etorkizuneko jarduerak estaltzeko barne-kapitala nahikoa ote den ebaluatzeko erabilitako prozeduraren laburpena*

Entitateak aukera sinplifikatua erabiltzen du barne-kapitala ebaluatzeko prozedura gisa, Espainiako Bankuak argitaratutako Kapitalaren Autoebaluazio Prozesuaren Gidak finkatzen duenaren arabera.

Aukera sinplifikatuaren bidez, honela egiten da barne-kapitalaren ebaluazioa: kreditu-arriskuagatiko —tituludun posizioen kreditu-arriskua barne—, merkatu-arriskuagatiko eta eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabideen eskakizunak gehitu egiten dira, baita Kapitalaren Autoebaluazio Prozesuan kontuan hartu behar diren gainerako arriskuak ere (kreditu-kontzentrazioaren, likideziaren eta interes-tasen arriskua eta beste arrisku batzuk).



## 7. Kreditu-arriskuei buruzko informazioa

### 7.1. Errekerimendu orokorrak

#### 7.1.1. Kreditu-arriskua

##### a) "Berandutzeko" eta "narriatutako" posizioen definizioak, kontabilitate-eraginetarako

2017ko abenduaren 31n, zirkular hauetan jasotako definizioak erabiltzen ditu Entitateak berankortasuna definitzeko: 1) 2016ko apirilaren 27ko 4/2016 Zirkularrean, kreditu-erakundeentzat egindako 2004ko abenduaren 22ko 4/2014 Zirkularra (finantza-informazio publiko eta isilpekoari buruzko arauari eta finantzetako egoera-orrien ereduari buruzkoa) aldatu zuenean, eta 2) 2013ko maiatzaren 24ko 1/2013 Zirkularrean, Arriskuen Informazio Zentralari buruzkoan. Azken horren helburua hau da: 4/2004 Zirkularra eguneratzea, batez ere haren IX. eranskina, banku-araugintzaren azken garapenetara egokitzeak, FINA arauen kontabilitate-esparruarekiko bateragarritasunari eutsiz.

Zirkular horren IX. eranskinari egindako eguneratzearen xedea zen indarreko kontabilitate-esparrua aplikatzeko jarraibideetan esparru hauek ukitzen dituzten irizpideak sendotzea: i) kreditu-arriskua kudeatzeko politikak, metodologiak eta prozedurak, jasotako bermei buruzkoak barne, kontabilitateari dagozkion alderdietan; ii) eragiketen kontabilitate-sailkapena, kreditu-arriskuan oinarrituz; eta iii) horniduren zenbatespen indibidual eta kolektiboak. Era berean, esleitutako ondasunen edo zorrak ordaintzeko jasotako kopuru berreskuragarria zenbatesteko irizpideak ere sartu ziren.

***Bezeroaren berankortasunaren ondoriozko zalantzazko arriskua.*** Zor-tresnen zenbatekoa hartzen du barne, titularra eta bermea edozein direlarik ere, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbatekoren bat (printzipala, interesak edo kontratuz hitzartutako gastuak) mugaeguneratuta badu; kobraezintzat sailkatzeak izanez gero, ez dira kontuan hartzen. Emandako bermeak ere kategoriatan sartuko dira, abalduna berandutzean erori bada abalaturako eragiketan. Sailkapen horretan sartuko dira titular baten eragiketa guztien zenbatekoak, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbateko mugaeguneratutako eragiketak kobratzeko dauden zenbatekoen % 20tik gorakoak bada. Ehuneko hori zehazteko, mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eta berankortasunaren ondorioz zalantzazkoak diren eragiketen liburuetako zenbateko gordina ipiniko da zenbakitzailean, eta titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetako zenbateko gordina izendatzailean. Horrela kalkulaturako ehunekoak % 20tik gorakoa bada, titular horren zor-tresnak nahiz kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak berankortasunagatiko zalantzazkoetara eramango dira.

Posizio narriatuen kontabilitate-definizioari dagokionez, 4/2004 Zirkularra erabiltzen du Caja Laboralak.





**Aktibo narriatuak.** Aktibo narriatutzat joko dira narriatze-ebidentzia argiak dituzten zor-tresnak eta arrisku eta konpromiso kontingenteak, baldin eta, funtsean, ordaingabeak, ez-betetzeak, birfinantzaketak eta hitzartutako etorkizuneko fluxuak osorik ez berreskuratzeko edo, kapital-tresnen kasuan, kontabilitate-balioa osorik ez berreskuratzeko aukera agerian uzten duten datuak daudenean.

b) *Kreditu-arrisku orokorragatik eta berariazkoagatik egin beharreko doikuntzak zehazteko egokitutako planteamendu eta metodoen azalpena*

Arrisku eta konpromiso kontingenteengatik hornidurak honako hauek dira: Entitateak hirugarren baten obligazioak bermatzeko eragiketak hornitzera bideratutako zenbatekoak. Obligazio horiek, aldiz, emandako berme finantzarioen edo antzekoen ondorioz, edota konpromiso kontingenteen ondorioz, sortutakoak dira. Zenbateko horiek baloratzeko, Espainiako Bankuak 4/2016 EBZren IX. eranskinean zehazten duen metodoa erabiltzen da.

Kreditu-arriskuaren ondoriozko galeren estaldurak kalkulatzeko, aurrerago zehaztu ditugun irizpideak erabiltzen ditu Taldeak.

Arrisku hautemangarririk gabetzat sailkatutako eragiketei (funtsean banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoei eta Europar Batasunekoak edo arriskurik gabekotzat jotako beste herrialde batzuetakoak direnei) % 0ko estaldura-ehunekoa ezartzen zaie, baldin eta zalantzazko eragiketatzat sailkatuta ez badaude, kasu horretan banaka zenbatesten baitzaie narriadura.

1) Estalduren banakako zenbatespenak.

Hauek dira banakako zenbatespena egiten zaien estaldurak:

i) *Banaka nabarmenak diren kreditu-hartzaileen zalantzazko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko atalasea ezarri du arriskuarekiko guztizko esposizioan, kreditu-hartzaileak nabarmentzat hartzeko.*

ii) *Arrisku-talde homogeen batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.*

iii) *Berankortasunaren ondorioz edo bestelako arrazoiren bategatik zalantzazkotzat sailkatutako eta arrisku hautemangarririk gabetzat identifikatutako eragiketen estaldurak.*

Estaldura horiek zenbatesteko erabiltzen diren irizpideen bidez, analistek hornidura-maila esleitzen dute, bezeroaren egoera zehatzaren eta eragiketaren arabera eta hauek aintzat hartuz:

i) Kutxa-fluxuen sorrera: zordunek beraien negozioaren bidez etorkizunean kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna duten, beren jardueraren eta egitura ekonomiko-finantzarioaren bidez zorraren zati bat edo osotasuna ordaintzeko.



- ii) Bermeen berreskurapena: zordunek beren negozioarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez dutenean, bermeak exekutatzeko dira zorra berreskuratzeko.

Bestalde, banakako zenbatespenerako aintzat hartu beharreko gutxieneko estaldurak hauek izango dira: zalantzazko arriskueterako zenbatespen kolektiboko irizpideak erabiliz aplikatzekoak direnak, edo, sustapen-sektoreko eragiketen kasuan, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideei jarraiki ezarri beharrekoak.

## 2) Estalduren zenbatespen kolektiboak:

Hauek dira zenbatespen kolektiboa egiten zaien estaldurak:

- i) Arrisku normaltzat sailkatutako esposizioak (zaintza berezikotzat sailkatuak barne), salbu eta kreditu-hartzailearen bat badago, gutxienez 90 eguneko ez-ordaintzerik gabe, eta, haren egoera ekonomiko-finantzarioa zehatz-mehatz aztertu ondoren Taldeak erabakitzen badu, berankortasuna ez beste arrazoiren bategatik zalantzazkotzat ez jotzea, nahiz eta estimatutako hornidura-bolumena handitu beharra eduki. Hornidurak zenbatesteko, hornidura kolektibo bat kalkulatzeko da, kreditu-hartzaileari dagokion kreditu-arriskuaren segmentuaren arabera.

Nabarmen izatera heltzen ez diren eta, gainera, zalantzakotzat jo ez diren kreditu-hartzaileentzat parametro jakin batzuk finkatu ditu Taldeak. Horiek gainditzen badituzte, zaintza bereziko arrisku normaltzat sailkatuko dira berehala. Oro har, ez-ordaintzeak 30 egun baino handiagoak eta 90 egun baino txikiagoak izango dira, eta mugaeguneratutako zenbatekoak 300 eurotik gorakoak.

- ii) Zalantzazkotzat sailkatutako eta estalduren banakako zenbatespenaren bidez ebaluatzen ez diren esposizioak.

Narriadura zenbatesteko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zor-tresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak. Horrela, bada, indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (egindako galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarria den erakusten dutenak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, kontzeptu hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzintasuna.

Kreditu-arriskuaren ondoriozko galeren estaldurak zenbatesterakoan, higiezin-bermeen bidez berreskuratzeko zenbatekoa kalkulatu behar da. Horretarako, haren erreferentziako balioa doitu egin behar da, zenbatespenean hauek behar bezala jasotzeko: batetik, ziurgabetasuna eta exekutatu eta saldu arte izan ditzakeen balio-erorikoak eta, bestetik, exekutatze, mantentze eta saltzeko kostuak.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Espainiako Bankuak 4/2004 Zirkularrean estimatutako deskontuak aplikatzen ditu Taldeak horien erreferentziako balioaren gainean. Horretarako, Espainiako banku-sektoreari buruz duen esperientzia eta informazioa hartzen ditu oinarri.

c) *Espozizioen balioa guztira, kontabilitate-konpentsazioak egin ostean eta kreditu-arriskuaren murrizketaren eraginak kontuan hartu gabe, eta espozizioen batez besteko balioa, banakaturako epealdi osoan zehar, espozizioen kategoriak aintzat hartuta*

Hurrengo taulak kreditu-arriskuaren zenbatekoa azalduko du, aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak eta -egokitzapenak egin ondoren.

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	(-) AKTIBOEN NARRIADURAREN ONDORIOZKO BALIO-ZUZENKETAK ETA HORNIDURAK (mila €-kotan)	ZUZENKETEN ESPOSIZIO GARBIA (mila €-kotan)	JATORRIZKO BATEZ BETEKO ESPOSIZIOA (mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	0	5.963.224	5.599.572
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	0	443.698	439.501
Sektore publikoko erakundeak	0	88.257	92.215
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	0	0
Nazioarteko erakundeak	0	0	0
Entitateak	0	984.289	905.826
Enpresak	-63.308	1.064.499	1.226.370
Txikizkariak	-5	2.770.601	2.706.889
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako espozizioak	0	9.780.341	9.882.518
Ez-ordaintzetako espozizioak	-322.668	605.386	982.730
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako espozizioak	0	91.896	101.533
Bono bermatuak	0	0	1.914
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko espozizioak	0	0	0
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako espozizioak	0	4.785	7.420
Beste espozizio batzuk	-91	933.203	917.757
Errenta aldakorra	-1.935	47.551	49.328
<b>GUZTIRA</b>	<b>-388.007</b>	<b>22.777.730</b>	<b>22.913.573</b>

10. taula: Kreditu-arriskuarekiko espozizioa, balio-zuzenketa eta hornidurak kenduta.



d) *Esposizioen banaketa geografikoa, horien kategoriak esparru nabarmenen arabera sailkatuta (esposizioaren garrantzia handia denean, zehaztasun handiagoz)*

Jarraian, Caja Laboralaren urteko kontu bateratuei jarraikiz, 2017ko abenduaren 31n kreditu-arriskua nolakoa den xehatuko dugu, jarduera-sektorearen eta eremu geografikoaren arabera.

KREDITU-INBERTSIOAREN KATEGORIA	GUZTIRA Kontabilitate-balio gordina (mila €-kotan)	EAE (mila €-kotan)	Nafarroa (mila €-kotan)	Madril (mila €-kotan)	Gainerakoak (mila €-kotan)
Kreditu-erakundeak	1.840.584	1.785	0	1.764.923	73.876
Administrazio publikoak	4.402.081	212.481	4.433	161.863	4.023.304
- Administrazio zentrala	4.012.276	0	0	0	4.012.276
- Gainerakoak	389.805	212.481	4.433	161.863	11.028
Beste finantza-erakunde batzuk	229.781	143.513	674	45.871	39.723
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	2.729.281	1.717.218	267.857	204.116	540.090
- Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	110.769	79.966	6.627	786	23.390
- Herri-lanen eraikuntza	133.066	74.614	6.578	42.548	9.326
- Gainerako helburuak	2.485.446	1.562.638	254.652	160.782	507.374
Enpresa handiak	431.700	334.052	27.031	36.181	34.436
ETEak eta enpresaburu indibidualak	2.053.746	1.228.586	227.621	124.601	472.938
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	10.659.792	6.174.576	1.268.594	463.023	2.753.599
- Etxebizitzak	9.965.784	5.808.101	1.188.489	341.832	2.627.362
- Kontsumoa	374.613	234.788	43.183	10.729	85.913
- Beste helburu batzuk	319.395	131.687	36.922	110.462	40.324
<b>GUZTIRA</b>	<b>19.861.519</b>	<b>8.249.573</b>	<b>1.541.558</b>	<b>2.639.796</b>	<b>7.430.592</b>

11. taula: Kreditu-inbertsioaren banaketa geografikoa.

e) *Esposizioen kokapena, sektorearen edo kontrako alderdiaren arabera eta esposizioen kategoria aintzat hartuz, bereziki ETE-en esposizioa zehaztuz (dagokionean, zehaztasun handiagoz)*

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	JATORRIZKO ESPOSIZIOA	Horretan: EIE-ena
	(mila €-kotan)	(mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	5.963.224	
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	443.698	
Sektore publikoko erakundeak	88.257	
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	
Nazioarteko erakundeak	0	
Entitateak	984.289	
Enpresak	1.127.807	101.465
Txikizkariak	2.770.606	940.615
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	9.780.341	
Ez-ordaintzeetako esposizioak	928.054	
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	91.896	
Bono bermatuak	0	
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0	
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	4.785	
Beste esposizio batzuk	933.294	
Errenta aldakorra	49.486	
<b>GUZTIRA</b>	<b>23.165.737</b>	<b>1.042.080</b>

12. taula: Esposizioen banaketa, sektore-motaren edo kontrako alderdiaren arabera, ETE-en esposizioa zehaztuz.



Gainera, bezeroentzako kredituaren zenbatekoaren ehunekoak ere erakusten da, jarduera-sektoreen arabera. Caja Laboralak sektore ekonomikoetan duen kreditu-jardueraren kontzentrazio-maila ikus daiteke bertan.

JARDUERA EKONOMIKO KO SEKTOREAK	%
Espainiako administrazio publikoak	% 3
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basozaintza, eta arrantza	% 0
Industriak	% 6
Eraikuntza	% 2
Merkataritza eta ostalaritza	% 5
Garraioak eta komunikazioak	% 1
Beste zerbitzu batzuk	% 3
Partikularrentzako kredituak	% 80
Sailkatu gabe	% 2
Balorazioagatiko doikuntzak	-% 3
Beste sektore ez-egoiliar batzuk	% 0
Gainerako aktiboak	% 1
<b>GUZTIARA</b>	<b>% 100</b>

13. taula: Bezeroentzako kreditu-ehunekoaren xehetasuna, jarduera-sektorearen arabera.

f) *Esposizio guztien hondar-epemugaren araberako banakapena, esposizioen mota aintzat hartuta (dagokionean, zehaztasun handiagoz)*

Taula honetan, kreditu-arriskuarekiko esposizioa zenbaterainokoa izan den azaltzen da, denbora-leiho nabarmen bakoitzaren hondar-epemugaren arabera banakatuta:

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	≤ 1 urte (mila €-kotan)	≤ 3 urte (mila €-kotan)	≤ 5 urte (mila €-kotan)	> 5 urte (mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	925.856	1.161.279	1.283.972	2.592.117
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	130.831	57.642	42.454	212.771
Sektore publikoko erakundeak	3.526	4.088	11.527	69.116
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	0		
Nazioarteko erakundeak	0	0		
Entitateak	346.066	224.714	83.675	329.834
Enpresak	384.887	231.099	227.537	284.284
Txikizkariak	910.036	422.398	391.580	1.046.592
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	14.293	72.328	153.558	9.540.162
Ez-ordaintzeetako esposizioak	144.304	122.430	92.930	568.390
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	32.458	0	0	59.438
Bono bermatuak	0	0		
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0	0		
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	0	0	0	4.785
Beste esposizio batzuk	381.464	479	44.420	506.931
Errenta aldakorra		0	0	49.486
<b>GUZTIARA</b>	<b>3.273.721</b>	<b>2.296.457</b>	<b>2.331.653</b>	<b>15.263.906</b>

14. taula: Esposizioen xehetasuna, hondar-epemugaren arabera.



g) Honako elementu hauen balioa, sektoreen edo kontrako alderdi nabarmenen arabera:

- i. Esposizio narriatuak eta berandutzeko esposizioak (bereizita)
- ii. Kreditu-arrisku orokorraren eta berariazkoaren ondoriozko doikuntzak
- iii. Kreditu-arrisku orokorraren eta berariazkoaren ondoriozko doikuntzengatiko zuzkidurak erreferentziazko epealdian

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	JATORRIZKO ESPOSIZIOA		ESPOSIZIO NARRIATUAK (mila €-kotan)	BERANDUTZEKO ESPOSIZIOAK (mila €-kotan)	(-) BALIO-ZUZENKETAK ETA HORNIDURAK (mila €-kotan)
	(mila €-kotan)	%			
Administrazio zentralak edo banku zentralak	5.963.224	% 25,74	-	-	0
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	443.698	% 1,92	-	-	0
Sektore publikoko erakundeak	88.257	% 0,38	-	-	0
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	% 0,00	-	-	0
Nazioarteko erakundeak	0	% 0,00	-	-	0
Entitateak	984.289	% 4,25	-	-	0
Enpresak	1.127.807	% 4,87	-	-	-63.308
Txikizkariak	2.770.606	% 11,96	-	-	-5
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	9.780.341	% 42,22	-	-	0
Ez-ordaintzeetako esposizioak	928.054	% 4,01	382.120	545.934	-322.668
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	91.896	% 0,40	-	-	0
Bono bermatuak	0	% 0,00	-	-	0
Epe laburrerako kreditu-saikapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0	% 0,00	-	-	0
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	4.785	% 0,02	-	-	0
Beste esposizio batzuk	933.294	% 4,03	-	-	-91
Errenta aldakorra	49.486	% 0,20	-	-	-1.935
<b>GUZTIRA</b>	<b>23.165.737</b>	<b>% 100,00</b>	<b>382.120</b>	<b>545.934</b>	<b>-388.007</b>

15. taula: Esposizio narriatuen eta doikuntzen xehetasuna.

h) Esposizio narriatuen eta berandutzeko esposizioen balioa, eremu geografikoen arabera

Ondoren, ez-ordaintzeekiko esposizioaren eta dagozkion horniduren xehetasuna azaltzen da, Euskal Autonomia Erkidegoa eta gainerakoak bereizita.

EREMU GEOGRAFIKOA	EZ-ORDAINTZEKIKO ESPOSIZIOA (mila €-kotan)	(-) AKTIBOEN NARRIADURAREN ONDORIOZKO BALIO-ZUZENKETAK ETA HORNIDURAK (mila €-kotan)
EAE	457.433	212.294
Gainerakoak eta esleituak	470.621	110.374
<b>GUZTIRA</b>	<b>928.054</b>	<b>322.668</b>

16. taula: Ez-ordaintzeekiko esposizioaren banaketa, eremu geografiko nabarmenen arabera.

i) Esposizio narriatuetarako kreditu-arrisku orokor eta berariazkoagatiko doikuntzen aldaketak berdinkatzea, irekierako saldoak, kreditu-arriskuagatiko doikuntzak, zuzkitutako kopuruak eta itxierako saldoak zehaztuz



Epealdi horretan, Talde Bateratuaren kreditu-inbertsioen zorroa osatzen duten produktuetan, saltzeko prest dauden aktibo finantzarioen zorroan eta salgai dauden aktibo ez-arruntetan izan diren aldaketan ondorioz gertatu dira aktiboak eta hornidurak narriatzeagatiko balio-zuzenketetan egindako aldaketak, bai eta arrisku eta konpromiso kontingenteagatiko hornidurak ere. Horiek guztiak aurretik deskribatu diren metodoak erabiliz erregistratzen dira.<sup>1</sup>

	AKTIBOAK NARRIATZEAGATIKO ZUZENKETAK	ARRISKU ETA KONPROMISO KONTINGENTEETARAKO HORNIDURAK
	(mila €-kotan)	(mila €-kotan)
AURREKO EKIT ALDIKO SALDOA (2016-12-31 KOA)	1.106.977	25.411
EMAITZETAN KARGATZEKO ZUZKIDURA GARBIAK	151.574	314
BERRESKURAPENAK	-121.504	-4.757
KOBRAEZINETARA INTSULDATUA ERATUTAKO FONDOEN KARGURA	-104.956	0
BESTE MUGIMENDU BATZUK	-1.639	24
SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N	1.030.452	20.992

17. taula: Epealdiko balio-zuzenketen eta horniduren aldaketak.

### 7.1.2. Kontrako alderdiaren arriskua

- a) Barne-kapitala esleitzeko eta kontrako alderdiaren arriskuari lotutako esposizioei mugak ezartzeko erabiltzen den metodologiaren azalpena

Kontrako alderdiaren arriskurako barne-kapitala esleitzeko, prozedura sinplea erabiltzen du Talde Bateratuak. Horrek esan nahi du ez dagoela alderik arrisku horretarako gutxieneko baliabide propioen eskakizunen eta barnean esleitutako kapitalaren artean. Talde Bateratuaren barruan, Caja Laborala da arrisku horren eraginpean dagoen erakundea.

Caja Laboralean, altxortegiaren eta kapital-merkatuaren esparruan, ratingetan eta iragazkietan oinarritutako prozedura bat erabiltzen da kontrako alderdiaren arriskuarekiko esposizioetarako mugak ezartzeko.

- b) Berme errealen eraginkortasuna aseguratze eta arrisku hori estaltzeko narriaduragatiko balio-zuzenketak ezartzeko politiken azalpena

Ikusi 7.2.2. atala.

<sup>1</sup> Ikusi 3.1. Kreditu-arriskua.



- c) *Korrelazioak daudelako kontrako eraginak gertatzeko arriskuaren inguruko politiken deskribapena*

Bai Kapitalaren autoebaluazio-prozesuan, bai Gestio Planean eta Plan Estrategikoan, Entitatearen arriskueta eragina izan lezaketen kontrako agertoki ugari aurreikusten dira. Horietan ere korrelazioak hartu dira aintzat kreditu-arriskuari eta merkatu-arriskuari dagokienez.

- d) *Kreditu-kalifikazioa murriztuko balitzaio Entitateak eman beharko lituzkeen berme errealeen eraginari buruzko azalpena*

Entitatearen kreditu-kalifikazioa murriztuko balitz, finantzaketa-kostu handiagoa eta titulizazio-fondoetako gordailutik irtetea baino ez luke ekarriko murrizketa horrek; ondorioz, likidezian baino ez luke izango eraginik eta eragin ukiezina izango litzateke.

- e) *Deribatuen zorrarako, arrazoizko balio positibo gordina, konpentsazio-akordioaren eraginak, jasotako bermeak eta konpentsazioaren ondorengo kreditu-arriskuarekiko esposizioa adieraztea*

Hurrengo idatz-zatian, Talde Bateratuaren kontrako alderdiaren arriskuarekiko esposizioaren zenbatekoak azalduko dira, banakatuta:

	ZENBATEKO A (mila €-kotan)
ARRAZOIZKO BALIO POSITIBO GORDINA	165.365
Horretatik, Add-On	21.511
(-) KONPENTSAZIO-AKORDIOEN ERAGINA	0
KREDITU-ARRISKUA KONPENTSAZIOAREN ONDOREN	165.365
(-) JASOTAKO BERMEAK	-141.610
Horretatik, Add-On	-5.625
<b>DERIBATUEN KREDITU-ARRISKUA</b>	<b>23.755</b>

18. taula: Kontrako alderdiaren arriskuarekiko esposizioa.

- f) *Esposizioaren balioa, CRR Erregelamenduko hirugarren zatiaren II. tituluko 6. kapituluaren 3. eta 6. ataletan adierazi diren metodoetatik edozein erabiliz*

Esposizioaren zenbatekoa, ezarri beharreko araudian oinarrituz erabilitako kalkulu-metodoen arabera banakatuta:





	ZENBATEKO A (mila €-kotan)
JATORRIZKO ARRISKUAREN METODOA	0
MERKATUKO PREZIOEN ARABERAKO BALORAZIOAREN METODOA	165.365
METODO ESTANDARRA	
BARNE-EREDUEN METODOA	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>165.365</b>

19. taula: Zenbatekoak balorazio-metodoaren arabera.

- g) *Kreditu-deribatuen estalduren zenbateko nozionala eta gaur egungo kreditu-arriskuaren banaketa, kreditu-arriskuarekiko esposizioaren kategorien arabera*

Ez da aplikagarria.

- h) *Kreditu-deribatuen eragiketen zenbateko nozionala, eragiketok erabilitako kreditu-deribatuen arabera sailkatuta eta Entitatearen kreditu-zorrorako erabilitako kreditu-deribatuetan eta bitartekaritza-jardueretan erabilitako kreditu-deribatuetan banakatuta*

Ez da aplikagarria.

## 7.2. Errekerimendu osagarriak

### 7.2.1. Metodo estandarra

- a) *Izendatutako kanpoko kalifikazio-agentzien (KKAen) eta esportazio-krediturako agentzien izenak eta, behar denean, edozein aldaketaren arrazoiak*

Kreditu-arriskuagatiko gutxieneko eskakizunak kalkulatzeko, honako KKA-ak erabili dira arrisku-haztapanak esleitzeko, kreditu-arriskurako metodo estandarren arabera: Standard & Poors, Moody's eta Fitch.

- b) *Esportaziorako kreditu-agentzia edota KKA bakoitza zer motatako esposizioetan erabiltzen den*

Gaur egun, finantza-erakundeetarako, errenta finko publiko nahiz pribaturako, administrazio zentraletarako eta enpresetarako erabiltzen dira KKAen kalifikazioak.

- c) *Jaulkipenen eta jaulkitzaileen kreditu-ebaluazioak negoziazio-zorroan agertzen ez diren elementuetara transferitzeko erabilitako prozesuaren azalpena*

Entitateak metodo estandarra erabiltzen du kreditu-kalifikazioak esleitzeko; beraz, ez dago kreditu-ebaluazioen transferentziarik negoziazio-zorroan sartuta ez dauden eta kalifikazio propiorik ez duten elementuetara.



- d) *Esportaziorako kreditu-agentzia edo KKA bakoitzaren kanpoko kreditu-kalifikazioa 2. kapituluko II. tituluaren hirugarren zatian agindutako kreditu-kalitatearen mailei lotzea*

Entitateak metodo estandarra erabiltzen du kreditu-kalifikazioak esleitzeko; beraz, ez dago loturarik CRR Erregelamenduko 2. kapituluko II. tituluaren hirugarren zatian agindutako kreditu-kalitatearen mailekin.

- e) *Bigarren kapituluko II. tituluaren hirugarren zatian agindutako kreditu-kalitatearen mailei lotutako esposizioen balioak, kreditu-arriskuaren murrizketaren aurretik eta ondoren*

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	ESPOSIZIOA (mila €-kotan)	ARINTZAILEAK EZARRI ONDOKO ESPOSIZIOA (mila €-kotan)	ALDAKUNTZA
Administrazio zentralak edo banku zentralak	5.963.224	5.963.224	% 0,00
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	443.698	443.698	% 0,00
Sektore publikoko erakundeak	88.257	88.257	% 0,00
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	45.728	
Nazioarteko erakundeak	0	0	% 0,00
Entitateak	984.289	842.679	-% 14,39
Enpresak	1.127.807	1.058.200	-% 6,17
Txikizkariak	2.770.606	2.732.696	-% 1,37
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	9.780.341	9.780.336	% 0,00
Ez-ordaintzeetako esposizioak	928.054	603.868	-% 34,93
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	91.896	91.896	% 0,00
Bono bermatuak	0	0	% 0,00
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0	0	% 0,00
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	4.785	4.785	% 0,00
Beste esposizio batzuk	933.294	933.203	-% 0,01
Errenta aldakorra	49.486	47.551	-% 3,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>23.165.737</b>	<b>22.636.121</b>	<b>-% 2,29</b>

20. taula: Arintze-tekniken eragina esposizioan.

### 7.2.2. Kreditu-arriskua murrizteko teknikak

- a) *Balantze barruko eta kanpoko partidak konpentsatzeko politikak eta prozesuak, eta Entitateak horiek zenbateraino erabiltzen dituen*

Entitatearen konpentsazio-politikak deribatuekiko eragiketen inguruak dira batez ere, eta konpentsazio-akordio edo netting (ISDA) gisa edo akordio kolateral (CSA) gisa aurkezten dira.

Kompentsazio-akordioetan, Entitateak kontrako alderdi jakin batekin dituen eragiketa positibo nahiz negatibo guztien merkatu-balioak konpentsatzen dira; akordio kolateraletan, berriz, alderdi sinatzaileak gordailu bat egin behar du, berme gisa, eragiketaren merkatu-balioa handiagoa denean hitzartutako arrisku-atalasea baino. Bi



kasuetan arriskua murrizten da, dela esposizioa txikitu delako, dela bermea handitu delako.

*b) Berme errealak gestionatzeko eta baloratzeko politikak eta prozesuak*

Espanian kokatutako aktiboetarako, indarreko araudiarekin bat datozen irizpideak erabiltzen ditu Taldeak, berme errealak baloratzeko. Zehazki, balorazioen hornitzaileak hautatu eta kontratatzeke Taldeak erabiltzen dituen irizpideen xedea da horien independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzea. Guztiak ere Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian erregistratutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balorazioak egiteko irizpideak ECO/805/2003 Aginduan, ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako balioztatzeke arauen gainekoan, daude ezarrita.

Kreditu-eragiketen higiezin-bermeak eta higiezinak eurak eragiketa egiten denean tasatzen dira (azken horiek erosketa, esleipen edo ordainean emate bidez), eta aktiboaren balioa nabarmen erortzen denean. Era berean, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularrak (4/2016 Zirkularrak aldatu zuenak) ezartzen dituen eguneratze-irizpideak erabiltzen dira; horien artean nabarmentzen da urtean behin zalantzazko arriskuak eta esleitutakoak eguneratzea.

*c) Entitateak onartzen dituen berme errealen mota nagusien azalpena*

Berme erreal gehienak etxebizitzaren finantzaketari lotutako hipotekei dagozkie, eta Entitatearen inbertsio-jardueraren 2/3 ingurukoak dira. Gainera, berme erreal gisa erabiltzen dira, halaber, diru-gordailuak, balore higigarriak, lurzoruen eta etxebizitzak ez diren higiezinak —merkataritzako lokalak, landa-finkak, industria-pabiloiak eta abar— gaineko berme errealak, aseguru-polizak...

*d) Kreditu-deribatuetako bermatzaileen eta kontrako alderdien mota nagusiak, eta haien kaudimena*

Gaur egun, Entitateak ez dauka estaldurako CDSrik.

*e) Ezarritako kreditu-arriskuaren murrizketaren barruko kreditu- edo merkatu-arriskuen kontzentrazioei buruzko informazioa*

Gaur egun, Entitateak arriskua murrizteko darabilen teknikaren barruan ez dago kreditu- edo merkatu-arriskuaren kontzentrazioirik.

*f) Esposizioaren kategoria eta berme-mota bakoitzerako estalitako esposizioaren guztizko balioa, balantze barruko eta kanpoko partiden arteko konpentsazioaren ondoren eta hegakortasun-doikuntzak ezarri ondoren, berme-mota hauen arabera:*

- i. Finantza-berme onargarriak.*
- ii. Beste berme erreal onargarri batzuk.*

Jarraian, baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko erabiltzen diren arintze-teknikak azalduko ditugu:



ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	FINANTZA-BERME ONARGARRIAK (mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	0
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	0
Sektore publikoko erakundeak	0
Garapenerako banku aldeaniztunak	0
Nazioarteko erakundeak	0
Entitateak	141.610
Enpresak	0
Txikizkariak	0
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	0
Ez-ordaintzeetako esposizioak	0
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	0
Bono bermatuak	0
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	0
Beste esposizio batzuk	0
Errenta aldakorra	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>141.610</b>

21. taula: Ezarritako finantza-bermeen zenbatekoa.

- g) *Esposizioaren kategoria bakoitzerako estalitako esposizioaren guztizko balioa, balantze barruko eta kanpoko partidak konpentsatu ondoren, berme pertsonalen edo kreditu-deribatuen arabera*

ESPOSIZIOAREN KATEGORIA	BERME PERTSONAL ONARGARRIAK (mila €-kotan)	KREDITU DERIBATUAK (mila €-kotan)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	0	0
Eskualde-administrazioak edo tokiko agintaritzak	0	0
Sektore publikoko erakundeak	0	0
Garapenerako banku aldeaniztunak	0	0
Nazioarteko erakundeak	0	0
Entitateak	0	0
Enpresak	6.299	0
Txikizkariak	37.905	0
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekez bermatutako esposizioak	5	0
Ez-ordaintzeetako esposizioak	1.518	0
Bereziki handiak diren arriskuei lotutako esposizioak	0	0
Bono bermatuak	0	0
Epe laburrerako kreditu-sailkapena duten erakunde eta enpresen aurreko esposizioak	0	0
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzio gisako esposizioak	0	0
Beste esposizio batzuk	0	0
Errenta aldakorra	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>45.727</b>	<b>0</b>

22. taula: Berme pertsonalen eta ezarritako kreditu-deribatuen zenbatekoa.



## 8. Negoziazio-zorroaren merkatu-arriskuari buruzko informazioa

### 8.1. Errekerimendu orokorrak

a) *Negoiazio-zorroaren merkatu-arriskuari dagokionez, Zirkular honi lotutako negoziazio-zorroaren eta CRR Erregelamenduan zehazten den negoziazio-zorroaren artean dauden aldeak*

Negoiazio-zorroari dagokionez, Entitateak bereizi egiten ditu kontabilitate-xedea eta kaudimen-xedea; 4/2004 EBZren eta CRR Erregelamenduaren arabera daude definituta, hurrenez hurren.

Bereizketaren oinarria hauxe da: kaudimen-xederako, epe laburrean saltzeko gestionatzen den zorroa da negoziazio-zorroa, eta altxortegiko tradingaren gestio-esparruari dago lotuta. Kanpo gelditzen dira, besteak beste, pasiboko estaldura-eragiketak, kasu batzuetan kontabilitateko negoziazio-zorroan sartzen dira eta.

b) *Posizio-arriskuagatiko, likidazio- eta entrega-arriskuagatiko, eta negoziazio-zorroaren kredituaren eta aurkako alderdiaren arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa*

Merkatu-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen xehetasuna emango dugu segidan, negoziazio-zorroari lotutako arrisku-mota bakoitzaren arabera. Ez dago likidazio- eta entrega-arriskuagatiko eskakizunik.

	<b>ESKAKIZUNA (mila €-kotan)</b>
Errenta finkoko zorroaren posizio-arriskua	1.274
Akzioetako eta partaidetzetako posizio-arriskua	294
Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen arriskua	0
Lehengaietako posizioagatiko arriskua	0
Kredituaren eta kontrako alderdiaren arriskua	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.568</b>

23. taula: Baliabide propioen eskakizunak negoziazio-zorroan. Metodo estandarra.



## 9. Likidezia-arriskuari buruzko informazioa

### 9.1. Errekerimendu orokorrak

Entitateak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken 2 hamarkadetan. Testuinguru horretan, Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du LABORAL Kutxak, Kontseilu Errektoreak onartuta. Eskuliburu horrek, Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen “Likidezia-arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak” (2008ko iraileko dokumentua) betetzeaz gain, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatzen du. Nabarmentzekoa da, gainera, Arriskuarekiko Grinaren Esparrua eta Recovery Plana sortu zituela Entitate Nagusiak 2015ean. Lehenengoan, likidezia-arriskuaren adierazle garrantzitsu batzuetarako grinaren eta tolerantziaren atalaseak zehaztu ditu eta, bigarrenean, alerta-mailok eta likidezia-krisia sortzen denerako jarduketa-protokoloak eguneratu.

Prozeduretan ezarritako eginkizunetan sakonduz, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, funtsezko zenbait adierazletarako mugak eta aurreko adierazleentarako edo aparteko beste batzuetarako epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, muga eta helburu horiek zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Muga eta helburu horiek guztiak kontrolatzeko, altxortegi-plan bat egiten da hilean behin. Bertan, inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen dira, mugak eta helburuak ezartzen zaizkien adierazleen bilakaera zehatzeko. Horrela, epe ertainean adierazle horiei eta likideziari aurreikusten zaien bilakaerari buruzko informazioa etengabe eguneratuta izateko aukera du Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk). Horrela, agregatuen bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBk, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude. 2014an, LCR ratioa ere erantsi zen, eta, 2017ko ekitaldia ixtean, Entitateak maila altua du bertan; izan ere, aise bete du arautzaileak 2018ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2017ko itxieran, Entitateak hauxe du:

- % 400eko LCR ratioa.
- Haircutak aplikatu ostean, 4.024 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak), Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 755 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 3.269 milioi euro EBZko aktibo aukeragarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko modukoak. Entitateak likidezia-maila garbi positiboari eutsi dio urtean zehar. Beste alde batetik, 2017ko martxoan Entitateak 300 milioi euro eskuratu ditu EBZren TLTRO II epe luzerako finantzaketa-eragiketen esparruan. Eragiketa horiek, ordea, ez dute likidezia-handitzerik ekarri, kolaterala pignoraturaz eskuratu baitziren.



- % 78ko Loan to Deposits ratioa.
- Entitateak zuhurtasun-politika erabili duen handizkako finantzaketa:

1.525 milioi euroko zenbatekoa bildu du, balantze osoaren % 7koa. Kopuru horretan sartu dira merkatuko zedulak eta EBZtik jasotako dirua eta kanpo geratu dira autozorrorako zedulak, titulizazioak eta KOI finantzaketa, horien muga-eguneko fluxuak lotuta baitaude finantzatzen dituzten aktiboei dagozkienekin.

Finantzaketa-iturrietan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, Caja Laboralak honako hauek ditu, ekitaldiaren itxieran: 1.225 milioi euroren hipoteka-zedulen jaulkipenak (autozorroa kanpo utzita) eta EBZtik hartutako dirua (TLTRO II), 300 milioi euro alegia. Bestalde, Entitateak 184 milioi euroko finantzaketa du merkatuan, hipoteka-partaidetzak titulizatzearen bidez (Entitateak berak eskuratutako bitartek deskontatuta), bai eta KOIk bitartekotutako 13 milioi euroko finantzaketa ere. Dena den, lehen esan dugunez, ez KOI finantzaketak ez titulizazioek ez dute muga-egunean birfinantzatzeko premiarik.

Muga-egunetan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, hipoteka-zedulak 2019az gerokoak dira, dibertsifikatuak gainera, eta EBZtik jasotakoa 2021eko martxoan mugaeguneratzea dago aurreikusita.

Ondorioz, epe ertainerako likidezia-beharrak behar bezala estalita daude, finantzaketa-gaitasunen bidez.



## 10. Eragiketa-arriskuari buruzko informazioa

a) *Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko erabilitako metodoak*

Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko, metodo estandarra erabiltzen da, eta hori erabiltzeko baimen-eskaera guztiak egin dira. Metodo horren arabera, kapital-eskakizunak zehazteko, azken 3 ekitaldietako sarrera nagusien batez bestekoa hartuko da aintzat. Sarrerok lortzeko, berriz, emaitza-kontuko epigrafe hauek gehitu behar dira:

- Interesak eta antzeko errendimenduak
- Interesak eta antzeko zamak
- Kapital-tresnen errendimenduak
- Jasotako komisioak
- Ordaindutako komisioak
- Finantza-eragiketen emaitza garbia
- Beste ustiapen-produktu batzuk

Sarrera nagusiak arauak ezartzen dituen negozio-lineetara bideratu behar dira, arrisku horren ondoriozko baliabide propioen eskakizunak zehazten dituzten haztapen-koefizienteak aplikatu ahal izateko.

2017ko abenduaren 31n, 51.357 mila euroko eskakizunak kalkulatu dira baliabide propioetan.

ERABILITAKO METODOA	GUTXIENKO BALIABIDE PROPIOAK (mila €-kotan)
Metodo Estandarra.	51.357

24. taula: Posizio-arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak. Metodo Estandarra.

b) *Entitateak erabiltzen baditu, 312. artikulua 2. idatz-zatian aipatzen dituen neurketa-metodo aurreratuak deskribatzea, bai eta Entitateak erabilitako kalkulu-metodologia kontuan hartzen diren barne- eta kanpo-faktoreak ere, eta, batzuk erabiltzen badira soilik, erabilitako metodoen irismena eta estaldura*

Ez da aplikagarria.





## 11. Negoziazio-zorroan agertzen ez diren errenta aldakorreko esposizioak

- a) *Esposizioak helburuen arabera bereiztea, bereziki gainbalioetarako eta harreman nahiz arrazoi estrategikoetarako, eta kontabilitate-teknikak eta balorazio-metodologiak azaltzea*

Entitateak bereizketa egiten du saltzeko asmoz eusten dien zorroen eta helburu estrategikoetarako eusten dien zorroen artean, horri buruz ezarri beharreko kontabilitate-araudiak finkatzen dituen irizpideei jarraituz.

Saltzeko prest dauden aktiboen zorroan, Talde Bateratuaren mendekoak, elkarkideak edo taldeaniztunak ez diren erakundeetako kapital-tresnak sartzen dira, kontabilitateko negozioziorroaren barruan ez badaude. Egonkortasunez eskuratutako partaidetzak, aldiz, berariaz sartzen dira.

Finantza-aktiboak, oro har, eskuratu zirenean zuten kostuarekin erregistratzen dira hasieran. Kontabilitate-itxiera bakoitzeko balorazioa egiteko, irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira. Arau horretatik kanpo daude kreditu-inbertsioak, muga-eguneko inbertsio-zorroa, arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien kapital-tresnak eta azpiko aktibotzat kapital-tresna horiek dituzten eta horiek entregatuta likidatzen diren finantza-deribatuak.
- Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan bata besteari egoki informatuta emateko aktibo horrek duen prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da, merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboan duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.
- Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balorazio-ereduetara. Orobat, balioztatu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku-motak batik bat. Halere, garatutako balorazio-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa bat ez etortzea balorazio-egunean erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.
- Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien beste erakunde batzuen kapitaleko partaidetzak eta azpiko aktibotzat tresna horiek dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira, baina behar denean narriaduragatik izan dituzten galerak kontuan hartuta.
- Finantza-aktiboen kontabilitate-balioetan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jaso erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak "Interesak eta antzeko errendimenduak"



epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontuko "Finantza-eragiketen emaitzak (garbiak)" epigrafean.

- Estalitako partida eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, irizpide hauek kontuan hartuta erregistratzen dira balorazio-aldeak:
- Arrazoizko balioaren estalduretan, galdu-irabazien kontuan jasotzen dira, zuzenean, estalitako arriskuaren motari dagokionez estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan gertatzen diren aldeak.
- Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balorazio-aldeak galdu-irabazien kontuan sartzen dira zuzenean.
- Eskudiru-fluxuen estalduretan, estaldura-elementuen estaldura eraginkorraren balorazio-aldeak "Ondare garbi bateratuaren balorazioagatiko doikuntzak" epigrafean jasotzen dira, aldi baterako.
- Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbiko Balorazioagatiko doikuntzak epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balorazio-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

b) *Balantzeko balioa, arrazoizko balioa eta, merkatu antolatuetan negoziatutako errenta aldakorrarentzat, merkatu-prezioarekiko konparazioa*

Ondoren, partaidetzen zenbatekoaren eta negoziazio-zorroan sartzen ez diren beste kapital-tresna batzuen xehetasuna azalduko dugu:

	<b>KONTABILITATE- BALIOA</b>	<b>ARRAZOIZKO BALIOA</b>
	<i>(mila €-kotan)</i>	<i>(mila €-kotan)</i>
PARTAIDETZAK	155.690	155.690
KAPITAL-TRESNAK	179.545	179.545
<b>GUZTIRA</b>	<b>335.235</b>	<b>335.235</b>

25. taula: Partaidetzak eta kapital-tresnak. kontabilitate-balioa eta arrazoizko balioa.



- c) Merkatu antolatuetan negoziatutako errenta aldakorreko eta behar bezain dibertsifikatuak ez diren zorroetan kotizatu gabeko errenta aldakorreko esposizioen motak, izaera eta zenbatekoak

	ZENBATEKOA (mila €-kotan)
PARTAIDETZAK	155.690
a. Kotizatutakoak	0
b. Kotizatu gabeak	155.690
KAPITAL-TRESNAK	179.545
a. Kotizatutakoak	53.860
b. Kotizatu gabeak	125.685
<b>GUZTIRA</b>	<b>335.235</b>

26. taula: Partaidetzak eta kapital-tresnak. Izaeraren araberako banakatzeara.

- d) Epealdiko salmenta eta likidazioetan metatutako irabaziak edo galerak

	ZENBATEKOA (mila €-kotan)
Irabaziak	28.778
Galerak	3.837
<b>GUZTIRA</b>	<b>24.941</b>

27. taula: Salmenta- edo likidazio-emaitzak.

- e) Egin gabeko irabazi eta galera guztiak, errebaluazioagatiko ezkutuko irabazi eta galera guztiak eta fondo propioetan sartutako zenbateko guztiak

2017ko abenduaren 31n, Caja Laboral Taldeak 31.393 mila €-ko kapitala du Balorazioagatiko doikuntzetan.



## 12. Negoziazio-zorroan sartuta ez dauden posizioetako interes-tasaren arriskuari buruzko informazioa

- a) *Interes-tasaren arriskuaren izaera, funtsezko hipotesia, maileguen aurretiko amortizazioei buruzko hipotesiak eta epemuga-datarik gabeko gordailuen bilakaeraren hipotesiak barne hartuta, eta arrisku horren kalkuluaren maiztasuna*

Entitatearen emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galerekin du zerikusia interes-tasaren arriskuak. Balantzeko arrisku hori ebaluatzeko, Entitateak simulazioa erabiltzen du oinarritzko tresna gisa, eta interes tasen agertoki desberdinetan epe ertainean sor daitezkeen galeren estimazioa egiten du.

Simulazioetan amortizazio aurreratuei buruz jasotzen diren hipotesiak Entitatearen errealitate hurbilaren barne-azterketetan oinarritzen dira. Muga-egun jakinik ez duten gordailuen bilakaeraren hipotesiak egiteko, diru-merkatuen interes-tasetan espero den bilakaera hartzen da kontuan, bai eta Entitatearen negozio-politika eta marjinak ere.

Interes-tasaren arriskua hilean behin kalkulatzeko da.

- b) *Entitateko administrazio-organoak interes-tasaren gorako edo beherako nahasmenduak aztertzeke erabiltzen dituen sarreren, balio ekonomikoaren edo beste neurri esanguratsu batzuen aldakuntza, arrisku hori gestionatzeko metodoaren arabera*

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuarekiko esposizioaren eragina, eta, gestio aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, simulazioetan oinarritzen da APB. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertzen dituzte eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitateak epe luzera izango dituen emaitzak neurtu. Hiru hilean behin, arrisku horren bilakaeraren berri ematen dio Zuzendari Nagusiak Kontseilu Errektoreari.

Entitate Nagusiak gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarritzko 200 puntu behera eginez gero, marjina gordina % 2,52 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezarritako irizpideak hauek dira: hasierako saldoei eta balantzearen egiturari eustea, interes-tasak merkatu-igurikimenean arabera garatzea eta ordainketarik gabeko kontu korronteetarako 5 urteko iraupena finkatzea.

Halaber, balio ekonomikoa aldatuz gero, interes-tasetako oinarritzko 200 puntuko beherakada horrek 29,6 milioi euroko hazkundera eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 1,84 ingurukoa. Bestalde, neurri horretako gorakada gertatuz gero, 31,8 milioi euroko igoera eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 1,97koa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatutako irizpide berberak erabili dira.



### 13. Palanka-efektuaren ratioak

Palanka-efektuaren ratioak 1. mailako kapitalaren eta esposizio osoaren arteko erlazioa neurtzen du.

Palanka-efektuaren ratioa kalkulatzeko arauak eta informazio-eskakizunak Erregelamenduaren 429. artikuluan daude jasota. Erreferentzia gisa % 3ko maila ezarri da.

Taula honetan, palanka-efektuaren ratioen kalkuluak azalduko ditugu, hala 1. mailako kapitalaren definizio iragankorraren (Phased In ratioaren) arabera, nola 1. kapitalaren definizioaren (Fully-Loaded ratioaren) arabera; azken hori mailakako sarrera-prozesua osatzen denean aplikatuko da.

Lehenik eta behin, palanka-efektua kalkulatzeko aintzat hartzen diren aktiboen kontabilitate-berdinkatzea aurkezten da.

*mila €-kotan*

Kontabilitate-aktiboak eta esposizioak	Fully Loaded	Phased-In
Aktiboak guztira	22.435.789	22.435.789
Bateratzetik kanpoko doikuntzak	0	0
Finantza-tresna deribatuengatik doikuntzak	30.515	30.515
Balantzetik kanpoko partidengatik doikuntzak	466.846	466.846
Bestelako doikuntzak	720.321	648.877
<b>Esposizioa guztira</b>	<b>23.653.471</b>	<b>23.582.027</b>

28. taula: Palanka-efektuaren ratioari dagozkion kontabilitate-aktiboak berdinkatzea.

Ondoren, ratioen kalkulua azalduko dugu, Fully-Loaded zein Phased-in inguruneen arabera.



mila €-kotan

	Fully Loaded	Phased-In
<b>Balantze barruko esposizioak</b>		
Balantze barruko partidak	23.073.457	23.073.457
1. mailako kapitala zehazteko aktibo deduzituen zenbatekoak	-61.201	-132.645
<b>Balantze barruko esposizioak guztira</b>	<b>23.012.256</b>	<b>22.940.812</b>
<b>Deribatuetarako esposizioak</b>		
Birjartzearen kostua	143.854	143.854
Etorkizuneko balizko esposizioagatiko gehikuntzaren zenbatekoa	30.515	30.515
<b>Deribatuetarako esposizioak guztira</b>	<b>174.369</b>	<b>174.369</b>
<b>BFE-en (baloreak finantzatzeko eragiketen) ondoriozko esposizioak</b>		
Kontrako alderdiaren kreditu-arriskuarekiko esposizioa	0	0
<b>BFE-en ondoriozko esposizioak guztira</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Balantzetik kanpoko bestelako esposizioak</b>		
Zenbateko nozional gordinarekin baloratutako balantzetik kanpoko esposizioak	1.162.371	1.162.371
Kreditu-baliokideetara bihurtzeagatiko doikuntzak	-695.525	-695.525
<b>Balantzetik kanpoko bestelako esposizioak</b>	<b>466.846</b>	<b>466.846</b>
<b>Kapitala eta esposizioaren batez bestekoa guztira</b>		
1. mailako kapitala	1.655.714	1.584.270
<b>Guztizko esposizioaren neurria</b>	<b>23.653.471</b>	<b>23.582.027</b>
<b>Palanka-efektuaren ratioa</b>		
<b>Palanka-efektuaren ratioa</b>	<b>% 7,00</b>	<b>% 6,72</b>
<b>Kapitalaren neurria zehazteko xedapen iragankorrak hautatzea</b>		
<b>Kapitalaren neurria zehazteko xedapen iragankorrak hautatzea</b>	<b>Erabateko integrazioa</b>	<b>Neurri iragankorra</b>

29. taula: Palanka-efektuaren ratioa ezagutarazteko taula.

Segidan, esposizioek balantze barruan duten banakapena aurkeztuko dugu:



mila €-kotan

Balantze barruko esposizioen banakapena	Fully Loaded	Phased-In
Balantze barruko esposizioak guztira	23.012.256	22.940.812
Negoiazio-zorroko esposizioak	134.915	134.915
Banku-zorroko esposizioak; horietatik:	22.877.341	22.805.897
Bono bermatuak	0	0
Jaulkitzaile subiranoak	6.124.036	6.124.036
Eskualde-administrazioak, garapenerako banku aldeaniztunak, nazioarteko erakundeak eta sektore publikoko erakundeak	531.955	531.955
Entitateak	984.289	984.289
Ondasun higiezin gaineko hipotekez bermatutakoak	9.780.341	9.780.341
Txikizkakoan esposizioak	2.770.601	2.770.601
Enpresak	1.064.499	1.064.499
Ez-ordaintzeetako esposizioak	605.386	605.386
Beste esposizio batzuk	1.016.234	944.790

30. taula: Balantze barruko esposizioen banakapena.

Begi-bistakoa denez, eskatutako gutxienekotik gorako ratioak ditu Entitateak, palanka-efektuari dagokionez.

Arriskuarekiko Grinaren Esparruan, palanka-efektuaren ratioa barne dago lehen mailako adierazleen artean; ondorioz, gobernu- eta zuzendaritza-organoez monitorizatu egin dezakete, eta gehiegizko palanka-efekturako arriskua gestionatzeko aukera ematen du.

Banku zentraletan eskudiruak 2017ko ekitaldian izandako hazkundera funtsezko eragilea izan da ratio horren beherakadan.



## 14. Ordainsari-politika

### a) Ordainsarien Batzordea

Caja Laboralak azken urteotan argitaratu diren arautegien arabera politikak eta jardunbideak ditu ezarrita ordainsarien alorrean.

Estatutu Sozialen 35. artikuluan jasotakoaren arabera, Kontseilu Errektorea eskumen hauetaz arduratzen da, besteak beste: goi-mailako gestioaz, zuzendariak ikuskatzeaz eta entitateko ordainsari-politika onartzeaz. 2016ko apirilaren 29an egindako bileran, Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea bereiztea erabaki zuen organoak, Espainiako Bankuak kreditu-erakundeentzat egindako 2016ko abenduaren 2ko 2/2016 Zirkularren, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzkoaren, 29. araua betetzeko. Horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoa 2013/36/EB Zuzentaraura eta EBren 575/2013 Erregelamendura egokitu da.

Hauek dira Ordainsarien Batzordeak 2017an egindako esku-hartzerik nabarmengarrienak:

Kontseilu Errektoreari Entitatean eta, bereziki, identifikaturiko kolektiboan ezartzeko ordainsari-politika orokorra eta kolektibo horretan sartzekoak proposatzea.

Ordainketa aldakor kolektiboa kalkulatzeko erabili beharreko formularen aldaketa berrestea.

Kontseilu Errektorearen ordainsari politika proposatzea, Batzar Nagusirako.

Kontseilu Errektoreari identifikaturiko kolektiboko zuzendarien ordainsari-politikaren berri ematea.

Urtean behin ordainsari-politikaren aplikazioaren inguruko ebaluazio independente bat (barnekoa edo kanpoko) egiten dela bermatzea.

### b) Ordainketa-sistema

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditoko lan-bazkideek lan-arloko lotura barik sozietate-alorreko lotura dutenez Entitatearekin, organo sozialek erabakitako ordainsari-sistema propioa ezartzen zaie.

Inoren konturako langileak ere baditu Entitateak, eta horiei langileen estatutua, kreditu-kooperatiben hitzarmen kolektiboa eta, banaka edo multzoan izenpetuta, indarrean dauden gainerako lan-akordioak ezartzea dagokio.

Bazkideen lan-ordainketa lan-aurrerakinak osatzen du, eta hori kontsumo-aurrerakinak eta zuzkidura-kuotak, honela:





- Egindako lanaren trukean lan-bazkideei ematen zaien ordainsaria da kontsumo-aurrerakina. Aurrerakin horren parte izango da dagokionean xede horrekin ezartzen den ordainsari aldakor osagarri kontingentea ere.
- Hornidura-kuota, berriz, Kooperatibak Gizarte Segurantzari eta Lagun Arori edo lan-bazkideen osasun-laguntza eta gizarte-aurreikuspena estal dezaketen beste erakunde batzuei abonatzen dien zatia da.

Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak onetsitako ordainsariei eta balorazioari buruzko barne-arautegiak ordainketa finakoaren oinarritzko egitura ezartzen du, lanpostuen lan-aurrerakina eta balorazio-prozedura eratzearen eta kalkulatzearen bidez.

Entitatean ezarri beharreko ordainsari-politikak osagai aldakor bat dauka: alde batetik, modalitate kolektiboa du, eta, beste aldetik, modalitate indibiduala, lan-bazkide guztiei ezartzen zaiena. Ez dago bermatutako ordainketa aldakorrik.

Ordainketa-politika bateratua bat dator Entitate nagusiaren politikarekin, baina sektoreko berezko araudia aintzat hartuta.

#### **c) Ordainketa aldakorra: ordainsarien eta entitatearen emaitzen arteko lotura**

Ordainketa aldakor kolektiboa (OAK) efizientzia-indize errearen eta zerga ondorengo mozkinaren (ZOMen) portaeraren arabera zehazten da, urteko Gestio Planean aurreikusitakoez alderatu ondoren. Banatu beharreko zenbatekoa finkatzeko, berriz, banatzeko diren soberakin garbien edo soberakin erabilgarrien gaineko ehuneko bat hartzen da kontuan, xede horrekin onetsitako taula bati jarraikiz. Ordainsariaren osagai hori lan-bazkide guztiei esleitzen zaie, bazkide bakoitzaren oinarri konputagarriaren arabera (oinarri konputagarria bazkide bakoitzaren lan-aurrerakinaren eta ordainketa aldakor indibidualaren arteko batura da).

Ordainketa aldakor indibiduala (OAI) helburu edo emaitza kuantitatibo edo kualitatiboen burutze-mailaren arabera ezartzen da, Entitatearen helburuetan eta helburu indibidualetan oinarrituta. Bazkide bakoitzaren OAIaren zenbatekoa zehazteko, dagokion talde profesionalaren puntu-balioari ekitaldi bakoitzean lortutako helburuen arabera esleitutako puntu-kopurua biderkatzen zaio.

Ordainsari osoan, osagai finkoak eta osagai aldakorrak behar bezala orekatuta daude: osagai finkoak ordainsari osoaren zati nahikoa handia hartzen duenez, ordainsariaren osagai aldakorretan politika erabat malgua aplikatu daiteke, eta ez ordaintzea ere gerta liteke. Guztira, ordainsari aldakorra nabarmen murrizten da errentagarritasuna eta kaudimena eskasak direnean, Entitateak duen arriskuarekiko grinaren esparruaren arabera, eta gerta liteke erabat kentzea.

#### **d) Identifikaturiko kolektiboa**



Entitatearen arrisku-profilean eragin nabarmena duten jardueradun pertsona guztiak osatzen dute identifikaturiko kolektiboa. Horren barruan daude:

- Kontseilu Errektoreko kide guztiak.

- Zuzendaritza Kontseiluko kide guztiak:

zuzendari nagusia, zuzendariondoko orokorra (Area Komertzialeko zuzendaria ere badena) eta area guztietako zuzendariak: Negozio Garapenaren Areakoa, Finantzen Areakoa, Baliabideen Areakoa, Arriskuen Areakoa eta Gestio Sozialekoa.

- Kontrol-eginkizunen arduradunak (3 lagun).

Barne Ikuskaritzako, Araudia Betearazteko eta Arriskuaren Kontrol Globaleko zuzendariak.

- Altxortegiaren eta Kapital Merkatuaren Departamentuko, Arriskuen Gestio, Plangintzako eta Gestio Kontrolleko zuzendariak, Area Komertzialeko lurralde-zuzendariak (2) eta Enpresen Sare Espezializatuko zuzendaria.

- Caja Laboral Gestión SGIICko Administrazio Kontseiluko zuzendari nagusia eta kontseilariak.

- Seguros Lagun Aro SAko eta Seguros Lagun Aro Vida SAko zuzendari nagusia eta Seguros Lagun Aro SAko Administrazio Kontseiluko kideak.

Urtean behin, identifikaturiko kolektiboaren osaera zehazten du Ordainsarien Batzordeak, barne-prozedurak erabiliz. Prozedura horietan sartzen dira, alde batetik, kolektiboko kideak aukeratzeko barne-irizpideak, 604/2014 zenbakidun Erregelamendu Delegatuan (EBreanean) adierazitakoen osagarriak, eta, bestetik, bazterte-irizpideak, Batzordearen ustez, kolektiboko kideen arrisku-profilean eragin handirik ez duten jarduerak identifikatu ondoren, Erregelamendu Delegatu horren 4.2 artikulua jasotakoaren arabera. 2017ko abenduaren 31n, 33 kide ezberdinek osatzen dute identifikaturiko kolektiboa.

#### **e) Identifikaturiko kolektiboaren ordainketa aldakorra: geroratzea eta kapital-tresna bidezko likidazioa**

Identifikaturiko kolektiboko kideei gainerakoei bezalako arautegiak aplikatzen zaizkie, ordainketa aldakor kolektiboaren eta indibidualaren alorretan. Ez dago bermatutako ordainketa aldakorrik.

Ordainketa aldakor indibidualari dagokionez, berriz, zuzendarientzako Ordainketa Aldakorreko Sistema du Entitateak ezarrita. Bertan, norbanakoaren emaitzak eta kasuan kasuko antolamendu-unitatearenak bateratu egiten dira Entitatearen emaitza



globalekin, eta, horretarako, irizpide finantzarioak eta ez-finantzarioak erabiltzen dira. Osagai hauek ditu:

- NHO: Negozioko Helburuen arabeko Ordainketa.
- ROE: postuaren Helburu Espezifikoen arabeko Ordainketa.

NHO helburuak urteko Gestio Planean ezarritako ratioak, zifrak eta adierazleak izaten dira; banakakoak izan daitezke, edota esparru eta maila desberdinetako hainbat antolakuntza-unitateen artean banatuta egon daitezke. Identifikaturiko kolektiborako NHO helburu horiek finkatzerakoan, emaitzen lorpena hartzen da aintzat, arriskuen onarpen zuhur eta arduratsuan oinarrituta. Zentzu horretan, finantzetako emaitzekin eta marjinekin eta beste negozio-helburu eta gastu batzuekin batera, kaudimengabeziengatiko zuzkidurak eta kobraezinak ere hartzen dira kontuan.

HEO helburuek, eskuarki, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzea ahalbidetzen duten egiturazko aurrerakuntzak eta hobekuntzak hartzen dituzte aintzat: gestio-tresnak, jarduerak, sistemak, informazioak, antolamendu-aldaketak eta aldaketa fisikoak... Helburu horiek postuaren ezaugarriei lotuta daude, eta kualitatiboak nahiz kuantitatiboak izan daitezke.

Helburuak urtean behin ebaluatzen dira ekitaldiaren itxieran, eta, mozkinen eta efizientziaren alorreko baldintzak betez gero, ordainketa aldakorra likidatzen da, geroratzeko eta kapital-tresnen bidez likidatzeko azalduko ditugun irizpideak erabiliz.

Identifikaturiko kolektiboaren ordainketa aldakorra geroratu eta kapital-tresna bidez likidatzeko, 2 irizpide erabiltzen dira:

- Proporzionaltasuna: Banku Ikuskaritzako Europako Batzordearen (CEBSren) gomendioetan jasotakoari jarraikiz, irizpide hori erakundearen izaeraren, esparruaren eta konplexutasunaren arabera neutralizatzea ahalbidetzen baitute.
- Materialtasuna: identifikaturiko kolektiboko kideek ordainsariaren alderdi finkoaren gainean kopuru absolutuetan nahiz erlatiboetan jaso dezaketen ordainsari aldakorraren gehienezko zenbatekoan oinarritua. Bi oinarri ditu: barruko eta merkatuarekiko konparazioa eta Entitateak sarrerak sortzeko duen gaitasunarekin eta kapitalizazio- eta likidezia-mailekin alderatuta duen garrantzi erlatiboa.
- Geroratzea: Bi irizpide horietan funtsatuz, lehen eurotik geroratzea aplikatuko da, kopurua 50.000 euro gordinetik gorakoa denean edo ordainsari finko gordinarekin alderatuta ehuneko 30etik gorako kopurua osatzen bada. Kasu horietan, urteko ordainketa aldakorraren % 60 hurrengo ekitaldian likidatuko da; gainerako % 40a, berriz, hurrengo 3 urtetan: urtean 1/3. Geroratutako zatia murriztu edo deuseztatu egin ahal izango da, ex-post doikuntzak eginez, Entitatearen, negozio-unitatearen edo zuzendariaren emaitzek justifikatzen badute edo bazkidearen diziplina-arazoak edo arau-haustekak direla eta. Halakoetan, geroratutako zatia ez likidatzea Kontseilu Errektorearen esku egongo da, Ordainsarien Batzordearen txostena aintzat hartuta.



- Kapital-tresna bidezko likidazioa. Proporzionaltasunaren eta materialtasunaren irizpideotan oinarrituz, kopurua 50.000 euro gordinetik gorakoa denean edo ordainketa finko gordinaren gaineko ehuneko 30etik gorakoa denean, ordainketa aldakorraren % 50 eskudirutan likidatuko da eta gainerako % 50a kapital-tresna bidez, kapital sozialera ekarpenak eginez. Kapital-tresna bidezko ordainketa horrek dagoeneko aipatu ditugun geroratze-arauak eta ex-post doitze-arauak bete beharko ditu.

#### f) Ordainketa finkoaren eta aldakorraren arteko ratioak

Identifikaturiko kolektiboak jasotzen duen ordainsari aldakorra, 2017ko ekitaldian, ordainsari finkoaren % 15 eta % 22 bitartean egon da.

#### g) Identifikaturiko kolektiboaren ordainsariei buruzko informazio kuantitatibo agregatua

Bildutako informazioa Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditoko eta une bakoitzean berorren zuhurtziazko talde bateratua osatzen duten entitateetako profesionalen buruzkoa da (sektore bakoitzaren zehaztasunak gorabehera), hain zuzen ere indarreko arauak aplikatuz identifikaturiko kolektiboan sartutakoena.

Entitatearen Kontseilu Errektoreko kideek —lehendakariak izan ezik— eta Caja Laboral Gesti n SGIICko kideek ez dute ordainsaririk jaso 2017ko ekitaldian kontseilari izateagatik. Hortaz, ordainsariei buruzko informazioa identifikaturiko kolektiboko gainerako 19 kideei dagokie, hau da, lehendakariari; Zuzendaritza Kontseiluko kideei; kontrol-eginkizunak dituzten departamentuetako zuzendariei; Barne Ikuskaritzako, Araudia Betearazteko eta Arriskuaren Kontrol Globaleko, eta Plangintzako eta Gestio Kontroleko, Arriskuaren Gestio, Altxortegiko eta Kapital Merkatuko zuzendariei; Partikularren Areako lurralde-zuzendariei; Enpresen Sareko zuzendariari; Caja Laboral Gesti n SGIICko zuzendari nagusiari eta Seguros Lagun-Aro SAko zuzendari nagusiari.

Taula honetan, ordainsariei buruzko informazioa bildu da, jarduera-esparruaren arabera xehakaturatuta:

*(eurotan)*

JARDUERA-EREMUEN ARABERA	PERTSONA-KOP.	ORDAINSARI FINKO A	ORDAINSARI ALDAKORRA	ORDAINSARIA GUZTIRA
Banka komertziala	6	675.162	115.914	791.076
Aktiboaren Gestioaren Area	5	363.248	67.272	430.521
Gainerakoak	8	787.546	153.775	941.321
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>	<b>1.825.957</b>	<b>336.962</b>	<b>2.162.918</b>

31. taula: Identifikaturiko kolektiboaren ordainsari bateratua, jarduera-esparruen arabera.

Kargu-motaren arabera banakatutako ordainsariei buruzko informazioa, berriz, honako taula honetan jasotzen dira:



(eurotan)

KARGU-MOTAREN ARABERA	PERTSONA-KOP.	ORDAINSARI FINKO A	ORDAINSARI ALDAKORRA	ORDAINSARIA GUZTIRA
Kontseilu Errektoreko lehendakaria	1	134.705	25.925	160.630
Goi-zuzendariak	8	922.309	170.989	1.093.298
Identifikaturiko gainerako langileak	10	768.943	140.048	908.990
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>	<b>1.825.957</b>	<b>336.962</b>	<b>2.162.918</b>

32. taula: Identifikaturiko kolektiboaren ordainsari bateratua, kargu-motaren arabera.

Ordainketa aldakorrean ez da kapital-tresna bidezko likidaziorik gertatu, eta ordainketa geroraturik ere ez dago ordaintzeko. Ez dago milioi bat eurotik gorako ordainketarik.



## Taulen aurkibidea

1. Taula: Talde bateragarria eta partaidetzako sozietateak.
2. Taula: CRR Erregelamenduaren eta 4/2004 Zirkularraren arabera modu desberdinean integratzen diren sozietateak
3. Taula: Aktibo konprometituak edo zamarik gabekoak
4. Taula: Jasotako berme errealak
5. Taula: Aktibo konprometituak / jasotako bermeak eta lotutako pasiboak
6. Taula: Baliabide propioei buruzko informazioa
7. Taula: Kapitaleko elementuak berdinkatzea
8. Taula: Kapital-eskakizunak arrisku-motaren arabera
9. Taula: Kreditu-arriskugatiko gutxieneko baliabide propioen errekerimendua. Metodo Estandarra
10. Taula: Kreditu-arriskuarekiko esposizioa, balio-zuzenketa eta hornidurak kenduta
11. Taula: Kreditu-inbertsioaren banaketa geografikoa
12. Taula: Esposizioaren banaketa, sektore-motaren alderdiaren arabera, ETE-n esposizioa zehaztuz
13. Taula: Bezeroentzako kreditu-ehunekoaren xehetasuna, jarduera-sektorearen arabera
14. Taula: Esposizioaren xehetasuna, hondar-epemugaren arabera
15. Taula: Esposizio narriatuaren eta doikuntzen xehetasuna
16. Taula: Ez-ordaintzeekiko esposizioaren banaketa, eremu geografiko nabarmenen arabera
17. Taula: Epealdiko balio-zuzenketen eta horniduren aldaketak
18. Taula: Kontrako alderdiaren arriskuarekiko esposizioa
19. Taula: Zenbatekoak balorazio-metodoaren arabera
20. Taula: Arintze-tekniken eragina esposizioan
21. Taula: Ezarritako finantza-bermeen zenbatekoa
22. Taula: Berme personalen eta ezarritako kreditu-deribatuen zenbatekoa
23. Taula: Baliabide propioen eskakizunak negoziazio-zorroan. Metodo estandarra
24. Taula: Posizio-arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak. Metodo estandarra
25. Taula: Partaidetzak eta kapital-tresnak. Kontabilitate-balioa eta arrazoizko balioa
26. Taula: Partaidetzak eta kapital-tresnak. Izaeraren araberako banakatzea
27. Taula: Salmenta-edo likidazio emaitzak
28. Taula : Palanka-efektuaren ratioari dagozkion kontabilitate-aktiboak berdinkatzea.
29. Taula: Palanka-efektuaren ratioa ezagutarazteko taula
30. Taula: Balantze barruko esposizioen banakapena
31. Taula: Identifikaturiko kolektiboaren ordainsari bateratua, jarduera-esparruen arabera
32. Taula: Identifikaturiko kolektiboaren ordainsari bateratua, kargu-motaren arabera